



Ahozko hitzetatik idatzietara:
ikasi eta jardun

Ahozko hitzetatik idatzietara: ikasi eta jardun – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007

48 or. ; 22 x 22 cm. (Euskara Mintzagai; 2)

ISBN 978-84-_____

1. Euskara-Normalizazioa. I. Euskadi. Kultura Saila. II. Izenburua (gaztelania).

Argitaraldia / Edición	1.a, 2007ko _____ / 1. ^a , _____ 2007
Ale kopurua / Tirada	1.500 ale / 1.500 ejemplares
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco Kultura Saila / Departamento de Cultura
Diseinua eta azala	Antton Olariaga
Maketazioa	Junkal Motxaile
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet	www.euskadi.net
Inprimaketa / Imprime	_____
ISBN	978-84-_____
Lege gordailua / Depósito legal	_____

Ana Eizagirre Sagardia



Ahozko hitzetatik idatzietara: ikasi eta jardun

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

AURKIBIDEA

Eskola eta erdararen ikaskuntza	9
Testu-mota gutxi eta maiz irakurriak	15
Eskola eta euskararen ikaskuntza	28
Testu-mota ugari eta azkar irakurriak	35
<i>Bibliografia</i>	41
<i>Ilustrazioen iturriak</i>	43



MENDEETAN ZEHAR gutxi batzuen esku egon da irakurtzen eta idazten ikasteko aukera, baita gaitasun horiek eguneroko bizitzan erabiltzearena ere. Gizarte eta kultura mailako eliteak eta euren seme-alabak izan dira duela gutxi arte idatzi eta irakurri izan dutenak. Halere, azken bi mende hauetan, lehen batzuen esku zegoen ezagutza herri xeheari zabaltzeko egin den saiakera esanguratsua izan da Europan. Garai horretan egin dira era berean, kultura idatzia herritarren artean zabaltzeko, eta herritarrak irakurketan eta idazketan gaitzeko saiakerarik handienak.

Ondorengo orrietan, irakurle, XIX eta XX. mendeetan zehar irakurtzen eta idazten ikasteko aukeren bilakaera eta euskaraz idatzitakoa irakurtzeko herritarrek izan dituzten moduak zeintzuk izan diren ulertzen lagunduko dizuten gako nagusiak eskainiko dizkizugu. Gurean, XX. mendearen lehenengo hamarkadetan sortzen hasi eta, batez ere, bigarren erdialdetik aurrera garatu izan direnak. Bilakaera horretan irakurketa eta idazketaren ikaskuntza modua erdara ardatz nagusi zuen eskolatik euskararen eta euskarazko irakaskuntza bermatu nahi izan duen eskolarantz doan ibilbidean kokatzen da nagusiki. Erabilerari dagokionez, berriz, irakurtzeko testu gutxi batzuk behin eta berriz irakurtzeko joeratik esku artean ugari edukitzera eta irakurketa azkarragoak egiteko joeretara igaroko gara.

ESKOLA ETA ERDARAREN IKASKUNTZA

Oro har, XX. mendearen erdialdera arte, herritar euskaldunak irakurtzen eta idazten batik bat eskolan eta erdaraz ikasi zuen. Ez dugu esango nor edo nork

eskolaz kanpo ikasteko aukerarik izango ez zuenik. Baina herritar gehienentzat eskola izan da irakurtzen eta idazten irakatsi izan dioten lekua. XIX. mendeaz geroztik Frantzia eta Espainiako Estatuak herritarrak eskolatzeko politika tinko eraman zuten aurrera, besteak beste, eskolen sorrera bultzatuz eta beren antolaketarako estatu-sistema osoa finkatuz.

Bi Estaturen eskolatzeko politikaren ardatz garrantzitsua, halaber, irakaskuntzan erabili beharreko hizkuntzarena izan zen. Izan ere, Estatuak derrigorrezko ezarri zuten irakaskuntza estatuko hizkuntzan izatea, gaztelaraz zein frantsesez, eta buru-belarri ekin zioten araua lurralde eta herri guztietan aplikatu zedin, bereziki euskal lurraldeetan eta herrietan eraginez. Euskal herrialdeetan, halere, euskararen presentzia nagusia zen, eta honek oztopo eta zailtasun ugari ekarri zien estatuei beren eskolatzeko politika aurrera eramateko, eta erdal irakaskuntza eraginkorra ezartzeko garaian. Frantziaren kasuan, adibidez, 1833an¹ eginiko inkesta orokor batean garbi ikusten da nolako lana ematen zien ikuskatzaileei eskoletan euskaraz zuen presentziak. Irakasleriaren gehiengoa bertakoa baitzen. Frantsesez hitz egin zezaten eta euskaraz idatzitako liburuak debeka zituzten gomendatzen zitzairen behin eta berriz irakasleei. Ikuskatzaileen ustez, euskararen erabilera hain hedatu eta finkatuta egoteak frantsesez irakurri eta idaztearen ikaskuntza zailtzen zuen.


Eginahalak eginda ere, ordea, lortutako emaitzak ez ziren erabatekoak eta, eskoletako araudietan aipatzen zenez, irakasleek maiz euskarara itzuli behar izaten zituzten beren testuak eta azalpenak, ikasleek frantsesez

1 FURET, F.- OZOUF, J. *Lire et écrire*. Paris: Ed. de Minuit, 1977, 346.orr.

ulertu ahal izateko. Ondorioz, Frantziako Instrukzio Publikorako Ministerioak agindu zuen ahozko zein idatzizko itzulpen ariketak egunero egin zitezen.

Hegoaldean ere antzerako politika eraman zen 1839an baieztatutako Foruen testuinguruan. Estatuak zeraman eskolatzeko politikaren aurrean Diputazioek beren kexa behin baino gehiagotan azaldu arren, eskolan gaztelaraz emaniko irakaskuntzaren nagusitasuna gero eta nabarmenago ezarri zen. Finean ez baitzuten euskal erakundeek erresistentzia handiegirik jarri ezarpenaren aurrean.

Mendean zehar Espainiar Estatuaren eskolatzeko politikak izan zituen ondorioak ederki ikus daitezke erroldetako datuetan oinarrituz egin dugun beheko grafiko honetan. Bertan irakurtzen eta idazten zekien populazio kopuruaren bilakaera ikus dezakegu.



Alfabetatu-osen portzentaiak, oro har, lau herrialdeetan, 1860-1930. Iturria: I.N.E., Censos de población.

Erroldak sistematikoki egiten hasi ziren garaia abiapuntu izanik, ikusten dugu, oro har, herritarren erdiak baino dezente gutxiagok zekiela irakurtzen eta idazten 1860an. Herrialdeen artean, bestalde, neurrietan dauden desberdintasunak nabarmenak dira. Guztien artean Araba zen irakurtzen eta idazten zekien herritar kopururik handiena zuena. Gipuzkoa, aldiz, proportzio-neurri baxuena zuena. Halere, XX. mendearen lehenengo herenerako (1930) hegoaldeko euskal herrialdeek portzentaje bertsuan ageri dute irakurtzen eta idazten zekien populazioa, hots, herritarren hiru laurdenaren ingurukoa. Horra hor eskolatzearren arrakasta.²

Frantsesaren kasuan bezala, Hegoaldeko eskoletan ere zenbait praktika elebidun bideratu zen gaztelaraz irakurri eta idaztearen ikaskuntza errazteko. Hiztegi eta hiztegidun gramatiken erabilera zabaldu zen eskoletan. Helburu horrekin argitaratu zuen 1842an Agustín Pascual Iturriaga jaunak, kasu, *Diálogos vasco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* liburua. Era berean, Luis de Astigarragak argitara eman zuen bere *Manual vascongado y castellano*, eskoletan dohainik banatua izan zena 1840ko Batzar Nagusiek hartutako erabakiaren arabera. Euskara zekitenak hobetzeko, ez zekitenak ikasteko eta gaztelera behar bezala hitz egiteko. Irakurtzen eta idazten ikasteko baliagarria omen zen manuala dugu hau. Euskararen eskutik, alegia, gaztelarari eman nahi zitzaion sarbidea. Hona hemen “Ejercicios de construcción gramatical” atalean azaltzen den hasierako ariketaren “I.- De pronombre y verbos”

² Oro har, errolda bakoitza kontutan hartuta ere, lau herrialdeak Estatu espainiarerako kalkulatu izan diren batez-bestekotik gora agertu ohi dira.

adibidea, lehenik esaldiak euskaraz eta bakoitzari parean gaztelerazkoa emanez:

“¿Euscalduna cerade?..... (erd)
 ¿Euscaraz badaquizu?.....
 ¿Iracurtzen dezu ondo?.....
 ¿Escribitzen icasi cenduan?.....
 ¿Euscalerria ezagutzen dezu?.....
 ¿Maite dituzu Erligioa fuero eta oitura zarrac?.....
 Orduan ecatzu bosteco-ori.....
 Bioc euscaldun eta adisquideac guerade.....
 Atseguin det ortzaz (edo orretzaz).....
 Icasi degu euscara cerbait.....
 Orain erderaz jardun bear degu.....
 ¿Biyetara sayatuco guerade?.....
 Bay, ongui da, asi zaitez.....”³

Gaztelera eskoletan eta eskoletatik kanpo indar handienaz ezar zedin lan egin zuenetakoa izan zen Juan Maria de Eguren liberala, 1859-1876 bitartean Gipuzkoa eta Arabako irakaskuntza-ikuskatzailea izan zena. Egin zuen Ikuskaritza lanaz gain,⁴ aipatzekoak dira estrategia elebiduna defendituz argitara eman zituen lanak: 1867an *Método práctico para enseñar el castellano*

3 ASTIGARRAGA, L. *Diccionario manual vascongado y castellano y elementos de gramática para el uso de la juventud de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la Doctrina Cristiana en ambos idiomas*. Tolosa: Imprenta de la Viuda de mendizábal e Hijos, 1877. Koldo Mitxelena, Fondo Gordeak: J.U. 4265. Ez ditugu gaztelera izulpenak jarri, nahiko esanguratsua iruditzen zaigulako euskaraz idatzita dagoenak azaltzen duen progresioa, euskaratik gaztelera nola eta zein terminotan igarotzen zen gutxi gora behera ikusteko.

4 Bere ikuskaritza txostenetan maiz aurkituko ditugu euskara eskoletan desagerrarazi zezaten irakasleei ematen zitzaizkien aholkuak.



PRIMERA PARTE.
VOCABULARIO

VASCONGADO.	CASTELLANO.
1.—GUZONAREN GORPETZA. REN PARTEAC.	PARTES DEL CUERPO HU- MANO.
Gorputza.	el cuerpo.
Burua.	la cabeza.
Becoia, copeta.	la frente.
Hlea.	el cabello.
Hietza.	la barba (pelo).
Cocota, ocoeta.	la barba.
Bigotea.	el bigote.
Arpegua.	la cara.
Cerebrua, burmuia.	el cerebro.
Baldequiae.	los sienos.
Muñac.	los senos.
Beguiac.	los ojos.
Betileac.	las pestañas.
Bepuruae.	las cejas.
Betazalac.	los párpados.
Matraliac.	las mejillas.
Suturra.	la nariz.
España.	el labio.
Aoa, auba, aua.	la boca.
Matraliezura.	la quijada.

1. Gipuzkoako euskaldunei gaztelera irakasteko 1867an argitaratu zuen metodoa gaztelera ez jakiteak herritarriari sortarazten zizkion arazoak saihesten laguntzera zetorren. Bertan eskoletan gaztelera irakasteko zein prozedura eraman proposatzen zen: irakasleak egunero tarte bat hartu beharko zukeen gaztelera irakasteko, horretarako ikasleak lau talde handitan banatuz, eta talde hauek hamarnakako behar adina taldetan bilduz. Bai hitzak, esaldiak etab. lehenik euskaraz zeuden bezala ikasi behar zituzten eta gero gaztelera, itzulpen ariketak eginez. Dotrina ere euskaraz galdetzea komenigarria ikusten zuen, ikasleei gaztelera erantzun araziz. Lehenengo euskaraz, gero gaztelera. Eta, ondoren, lehenengo gaztelera eta gero euskaraz esanarazi behar ziren liburuko atal bakoitzeko edukiak. Helburua ez zen izan herritarren artean euskara lantzea, berau gaztelera tinko ezartzeko bide bat baino.

en las escuelas vascongadas (Instrukzio Publikorako Kontseiluak eskoletako irakaskuntzarako onartua) delakoa, *Diccionario vasco-castellano* bat eta *Manual de conversación para uso de los que visitan el P.V.* Bere asmoa, euskara bakarrik ezagutzen zuten ikasleek gazteleraz zen irakaskuntza ulertzea zen. Helburu nagusia gaztelera irakastea zuen, zeharka euskararen ezagutza hobea eskaintzeko bidea ematen bazuen ere.

Oro har, irakaskuntza estrategia elebiduna erabili izanak gazteleraren ikaskuntza ziurtatzeaz gain beste efektu bat –aintzakotzat hartu beharrekoa oso– sortaraziko zuen gure ustez. Metodo eta manual horiek, irakurketarako gaitasuna –idazketarako baino gehiago–, areagotu zuten ikaslearengan, ama hizkuntzan eta bigarren hizkuntzan (gazteleran) irakurtzen trebatuz.

Argiki irakaskuntza elebidunaren aldarrikapen politikoa karlisten esku zegoen Instrukziorako Juntak egin zuen 1875ean bere *Reglamento Provisional de las escuelas de instrucción primaria de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*⁵ onartu zuenean. Araudi horretan oinarrituz, lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz irakurtzen irakatsi beharra adierazten zuen zirkularra⁶ zabaldu zen. Aldi berean, Juntak aginduta, irakurketarako kartila bat argitaratu zen *Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat*,⁷ G. Zalakainek moldatuta, eta eskoletarako testu ofizial gisa jarri zen salgai. Gobernu

karlistak hartutako neurri hauek, berez, ez zuten eraginkortasun handiegirik izan, bizi zen guda garaia zela eta. Baina euskararen sustapenerako izan zezaketen interesa adierazten dute, eta bere garaian hain praktika arrotza izango ez zela pentsatzeko bidea ematen digute.

Ondorengo Foruen galerak (1876) eta Kontzertu Ekonomikoen hasierak, bestalde, ondorio politiko, ekonomiko eta kultur mailakoak ekarri zituen. Batetik, euskal nortasunaren berezitasunak aldarrikatzen zituen ideologian kokaturiko kultur berpizkundea ekarri zuen, bere adierazpen politikoan alderdi nazionalista baten sorrera zuena. Bestetik, barne zein kanpo migrazioak sortaraziko zituen ekonomia politika protekzionistan murgilduriko industrializazioaren garapena. Egoera horrek, bere gorabehera politikoeekin, Bigarren Errepublika arte iraun zuen.

Garai horretan, ikusi dugu, gaztelerazko alfabetatze mailan gorakada nabarmena gertatu zen. Baina, aldi berean, euskal kultura eta politika mugimenduek eskolatzeko berriak garatzeko gune gisa hartu zuten eskola, euskararen erabileran oinarrituz. Honela sortu ziren lehenengo ikastolak deiturikoak. R.M. de Azkuek 1886an Bilbon sortutako “Ikastetxea” eta hiri berean urte batzuk geroago sortuko zirenak; nahiz eta irakaskuntzaren euskalduntze osoaren beharra oso argi zuten, ezin izan zuten guztiz lortu eta hauetan euskara, ikasgai soila zen. Euskara eta euskarazko irakaskuntza helburu izanik irakaskuntza estrategia elebidunaz edo irakaskuntza euskara hutsez bideratuko zuten eskola ereduak XX. mendean garatu ziren. Donostian Muñoak 1914. urtean ireki zuen “Koruko Andra Mariaren Ikastetxea”-n aurrekoek zituzten mugak gainditu eta irakaskuntza osoa euskaraz izatera

5 Azpeitia: Imprenta de Excma. Diputación a cargo de Pablo Martínez.

6 Gipuzkoako Artxibategi Orokorra, “Fomento de Instrucción Pública”, leg. 22b.

7 ZALACAIN, G. *Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat*. G.Z. moldatua. Tolosa: Pedro Gurruchaca. Koldo Mitxelena, 1875. Fondo Gordeak: J.U. 5481.

iritsi zen. Bere eskolaren adibidea kenduta,⁸ batez ere 20ko hamarkadatik aurrera burutu ziren euskarazko irakurketa-idazketa eta irakaskuntza bultzatu zuten eskolak –ez orain gaztelerazkoaren garapenerako baliabide gisa, baizik eta bere horretan sustatu nahi zen fenomeno gisa–, zela Diputazioak –Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak– bideraturiko auzo eskolen bitartez,⁹




2. Gipuzkoa-ko Diputazioa.
Nekazaritzako Irakuráldiak: mendi-
aldeko ikastolentzat. Donostia:
Diputazioko Irarkolan, 1933.

zela Euzko Alderdi Jeltzalearen eremu abertzaleko euskaltzaleek eta elkarteek Bigarren Errepublikara garaian martxan jarritako euskal eskolen bitartez.¹⁰

Euskarazko irakaskuntza bultzatu zuten esperientzia haietatik kanpo, aurreko mendean eta garaiko beste eskola arruntetan baimendu zen euskarazko testu bakarra kristau dotrina zen. Oro har, umeen eskuetan

gehien jarri zen liburu mota kristau ikasbidea izan zela esan dezakegu. Eta berau irakasteko katixima ugari argitaratu zen. Euskarazko dotrina arruntak, bai Foruen garaian eta bai hauen galeraren ondorengo



3. Duela gutxi arte euskal literaturan izan den testu eskasiak eta irakaskuntza gazteleraz edo frantsesez egin beharra izateak bihurtu zuten katixima eskoletarako oinarritzko testu. Katiximen erabilera oso zabalduta izan zen Euskal Herri osoan XIX. eta XX. mendeetan. Irakurketaren ikaskuntzarako tresna izango da gainera.

-
- 8 Ikus FERNANDEZ, I. *Oroimenaren hitza*. Bilbo: UEU, 1994. Eredu hura jarraituz beste ikastola batzuk sortu ziren Tolosan, Lizarran, Erreterian, Seguran etab.
- 9 Bizkaiko “Escuelas de barriada” 1919-1938, Gipuzkoako “Escuelas rurales” (1927-1938). Ikus: ARRIEN, G. *Educación y Escuelas de Barriada en Vizcaya*. Bilbao: Diputación Foral de Vizcaya, 1987. Gipuzkoan nekazal inguruan garatu zen eskolatzearen azterketa zehatza ikus GARMENDIA, J. *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los ayuntamientos (1900-1950)*. Leioa: EHU, 2004.
- 10 Ikus, ZABALETA, I., DAVILA, P. “Euskal eskolaren lehen urratsak”. TANTAK. 1990, 4.zb., 21-31orr. Ikus, baita ere ZABALETA, I. *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*. Leioa: EHU, 1998.

lehenengo hamarkadetan euskarazko ekoizpen idatzia urrituz joan zenean ere, Astete aitaren eta Ripaldaren itzulpenak izan ziren, euskalki ugarietara itzuliak izan zirelarik gainera.

Katiximekin batera ipuinak eta silabarioak izan ziren XIX. mendearen inguruan gehien erabili ziren irakaskuntza eta eskola-liburuak. Izan ere, ipuin eta alegiena arrakasta eta entzute handia izan zuen literatura izan zen, gaztetxoei irakasbideren bat agerian jartzera zuzenduak zeudelarik, erlijio testuak baino irakurtterazagoak baitziren. Zabalduak izan ziren oso Samaniegoren alegiak, baita Bizenta Mogelen *Ipui onak*, *ceintzuetan arquituco dituzten euscaldun necazari*, *ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco*, eta Agustin Pascual Iturriagaren *Ipuiak* ere.

Foruen galeraren ondorengo kultur susperraldian, silabarioak izan ziren euskarazko testuliburuaren aitzindari gisa eskura jarri ziren lehen testuak. Euskaraz irakurtzen eta idazten irakasteko lehen urratsak izan ziren. Karlitek argitara eman zuten kartilaren ezaugarri bertsuekin 1886an argitaratu zen *Agakia euskeras irakur'ten ikastekoa* izenburua zeraman silabarioa, K. A. Ormaetxeak idatzia.¹¹ Horren egitura berdintsuarekin ikusi zuen argia S. Aranaren *Umiaren lenengo aizkidia*-k 1897an.

Gerora, eta XX. mendearen 20ko hamarkadatik aurrera, euskarazko irakaskuntza bultzatu zuten aipatu eskola esperientziekin batera, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasten laguntzeko liburu eta kartilak, irakurketa-liburuak, ipuinak, geografia edota aritmetika irakasteko testuak etab. argitaratu ziren, oraingoan Eusko Ikaskuntzak gauzatutako hizkuntzaren berreskurapen kulturalerako politikaren barruan.



4. Euskara kultur esparru gehiagotara zabaltu nahiak eta euskarazko irakaskuntzarako euskarriak sortu beharrak eraman zituen mendearen hasierako euskaltzaleak hainbat gairen inguruko liburuak prestatu eta argitaratzera. Geografiazkoari buruzko hau adibide: Iturriotz, Pirmin. *Lutelesti*. Iru-Mailetan. Igo maila. Gasteiz: 1932.

- 11 *Agakia euskeras irakur'ten ikastekoa*, (Bizkaiko elxgizon batek iratzija). Bilbon Amofortu liburugilian argitaratua, 1896. Koldo Mitxelena. Fondo Gordeak: J.U. 6611. Liburu hau nolatan idatzi zuen esplikatu zuen Ormetse' tar P.A.-k in *Euskal-Esnailea*, 1909, orrrillak 15. Lehenengo hamaika irakurgaietan bokalak, kontsonanteak eta irakurtzen ikasteko oinarritzko pausua zeintzuk diren esplikatzen da. Ondorengo irakurgaiak, aldiz, gaztearen jokabidea bideratu eta zuzentzera begira egindako irakasbideak dira, berauen izenburuetan garbi ikus daitekeen bezala: 11.garren irakurgaia "Jaungoikoa maitetutia. Sinistia, itxaropena eta oneriskoa. Mezia zelan entzuten dan", 12.garren irakurgaia "Seme edo alabiak bere gurazoakanako daukezan egipideak", 13.garrena "Inori gauze txarrik etxako pa bial. Es orditutia eta aragiasko loikerijarik es egitia", 14.garrena "Inori es ezer ostutia, estan gauzarik es ezaftia eta guzufrik es ezatia", 15. "Asiera onekoen agiriyak", 16. "Eregu batzuk", 17. "Istokija".

Honela argitaratu ziren euskara ikasteko gramatikak eta hiztegiak, helduei begira idatziak batik bat, hala nola A. Campionen *Euskal-Izkindea*, Aizkibel ta Novia Salcedoren *Iztegiyak*, J.M. Lertxundiren *Euskal-iztiya*, M. De Arruzaren *Método práctico para aprender el euzkera*, B. 'tar P-k idatzitako *Método fácil para aprender el euzkera*, Lopez Mendizabal I.k egindako *Euskeraz eta erderaz itz egiteko esku-liburua*, Bera.Lopez Mendizabalen *Erdera-euzkera eta Euzkera-erdera iztegia* etab. Aritmetika irakasteko I. Lopez Mendizabal-ek idatzitako *Ume koxkorrentzat euzkeraz egindako zenbakiztiya edo aritmética*, R.M. de Azkueren *Erkindea-Geografia* (ume txikientzat). Irakurketa liburuetan: R.M. Azkueren *Lenengo irakurgaia Bein ta betiko*, J.M. Lertxundiren *Polli eta Pello*, E. Bustinzaren *Abarrak*, edota Vicente de Aizkibelen *Ipuin Aberkoyak*.

Euskara zein euskarazko irakaskuntzari begira argitaratutako liburu eta kartilen ugaltzea eta zabaltzea nabarmena izan zen mendearen bigarren hamarkadatik aurrera, lehen esan bezala, Eusko Ikaskuntzaren kultur berreskurapen politikaren eraginez argitaratu ziren lanen ildotik. Hor, nabarmen ageri den izena I. Lopez Mendizabalena da, berak eta bere moldiztegiak esparru didaktiko honetan egin zuen lana –*Umearen laguna*, *Xabiartxo*, *Martin Txilibitu*...– erabat esanguratsua izan baitzen ondorengo urteetan garatu zen euskarazko irakaskuntzarako.



5. López Mendizabal' dar Ixakak idatzia. Egile berak idatzitako Xabiartxo eta Martin Txilibitu liburuekin batera irakurtzen ikasteko oinarritzko testu-liburua izan zen mende hasierako euskal eskoletan, baita 60ko hamarkadako lehenengo ikastoletan ere.

TESTU-MOTA GUTXI ETA MAIZ IRAKURRIAK

Irakurtzen eta idazten aritzeko trebetasuna herritarren artean gero eta gehiago zabaltzen ari zen aldi berean, irakurketarako ohitura ere hedatuz joan zen pixkanaka-pixkanaka XIX. mendean zehar. Gizarte tradizionalari dagokion antzera, euskal herritarren artean finkatu zen irakurketa modua ahozko kultura eta adierazpenarekin oso lotura estua zuen irakurketa intentsiboaren eredua izan zen.

Argitaratu ziren idatziak zenbatak irakurriko ote zituzten jakiteko datu zehatzik ez dugu, baina hainbat gertaera kontutan hartzea komeni zaigu irakurtzeko joera zuten herritarren ezaugarri eta mugak zeintzuk ziren antzemateko. Alde batetik, alfabetatze-tasak eta eskola-baldintzak ikusita, euskaraz irakur zezakeen populazioa nahiko mugatua zela pentsatu behar dugu. Garai haietan ere euskaldun guztiek erabiltzen zuten euskara idatzirik ez egoteak dezente mugatzen zuen euskaraz idazten zenaren zabalpen esparrua. Bestalde, euskaraz idatzitako testuen eskaintza aurreko garaietakoa baino handiagoa zen, baina, nahiko apala oraindik ere. Ez zen gai askotan euskaraz idazten, eta argitalpen bakoitzean zabaltzen ziren ale kopuruak ere ez ziren oso handiak.

XIX. mendean eta XX.aren lehen zatian, oraindik, nahiko mugatua zen euskararen merkatua.¹² Oro har, euskarazko lanen eskaria –liburu zein aldizkariena– nahiko apala zen. Euskarazko liburuak edota aldizkariak eskuratu eta irakurriko zituen irakurleak trebakuntza maila egokia eta baliabide ekonomiko nahikoak edukitzeaz gain, hizkuntzarekiko interesa eta motibazio berezia beharrezkoak zituen. Interes eta motibazio horretan eragitera jo zuten garaiko euskalgintzan eta kulturgintzan ziharduten pertsonaiek eta taldeek.

Herri xeheak gertuen zituen testuak gutxi ziren. Eta testu horiek behin eta berriz irakurtzen zituzten, askotan ozenki, familiaren inguruan. Memorizatuak ziren testuak ziren, plekaria moduan, bere irakurketak zuen esanahia jada ahoz ezagutzen ziren mezuak deszifratzea zelarik azken batean. Eliza-liburu eta dotrinarekin batera, egutegiak ziren herritar euskaldun gehienek irakurtzen zituzten euskarazko testuak. Gipuzkoan, hirugarren testu mota bat gehituko genuke: bertso-paperak.

Ahozko literaturaren esparruan, poemagintzak, atsoitzak eta antzerkigintzak, izan eduki zuten bere

lekua, baina XIX. mendean goren maila lortu zuen literatura mota, bertsolaritza izan zen. Aipatu beste literatura motek goitik beherako bidea hartua zutelarik, bertsolaritza erabat nagusitu zen XIX. mendean, kualitatibo eta kuantitatiboki, Gipuzkoan bereziki. Tradizioz bertso desafioak zirenak desagertuz joan ziren bigarren karlistadatik aitzina eta plazako bertsogintza modua –lehiaketa modukoa– indartu egin zen. Hau, batez ere, Lore Jokoei esker gertatu zen, txapelketa eta jaialdien antolabide berriak indartuz joan ziren heinean. Testuinguru horretan, Lekuonak aditzera ematen digunez *“Bapateko bertsogintza palanka ederra zitekeen herriarengana iristeko, eta herria eritziz eta sentimenduz hornitzeko, jokabide sozial-politikoaren zerbitzuan”*.¹³ Badirudi bertsolarien jendaurreko emanaldiei eragin soziala aitortzen zitzaizela nolabait. Eta, faktore hori oinarritzkoa izango zen, beharbada, fenomenoaren biziraupenerako. Bertsolaritzaren iraupen eta hedapenean eragin zuen beste faktore garrantzitsuenetakoa, bertso-paperean fenomeno izan zen; bai herri-kulturaren ikuspegitik zein komunikazio idatziaren aldetik ere.¹⁴

12 Ikusi besterik ez dago Donostiako udal liburutegian, irakurketarako zaletasun handiena egon zitekeen esparruan –hirian eta liburutegian alegia–, zer nolako mugimendua egon zen lanen banaketan, gaztelarazko lanen eta euskarazkoen arteko konparazioan. Ikus, *Euskal Erria* aldizkaria adibidez, bertan aurkeztzen baitzituzten banatu ziren lanen inguruko datuak – 1885. urtetik aurrera sistematikoki neurtzen hasi zirenetik–. Ikus, halaber, Donostiako Udal Artxibategia, fomento, 220-6 esp.

13 LEKUONA, J.M. “Ahozko literaturaren historiaz” in INCHAUSTI, J.(zuz.): *Euskal Herria*. Lankide Aurrezkia /Jakin, 1985, I tomoa, 466 orr.

14 ZAVALA, A. *Bosquejo de historia del bertsolarismo*. Donostia: Auñamendi, 1964. 45.orr.



6. Bertsoak paperean jarri, inprimatu eta azoketan saltzen zirelarik, kultur fenomeno oso garrantzitsua izatera iritsi zen, batik bat Gipuzkoan eta bi karlistaden arteko garaian. Denboraren poderioz, merkatu bidezko salmenta publikoa desagertuz joan zen eta, horren ordez, garaiko aldizkari eta egutegietan argitaratzen hasi ziren.

XX. mendean aurreko bideari jarraitu bazitzaion ere, pixkanaka ahulduz joan zen bertso-paperean fenomeno, herritarren irakurketa zaletasunak beste produkzio

idatzietarantz bideratzen hasi ziren aldi berean. Egutegi eta almanakak ziren gustuko idatzi berriak.

Egutegi eta almanakak erruz agertu ziren XVI, XVII eta XVIII. mendeetan herrialde protestanteetan zein katolikoetan.¹⁵ Euskal Herrian, aldiz, XIX. mendean zehar hasi ziren nabarmentzen.

Gazteleraz idatzitako egutegi eta almanakek Euskal Herrian izan zuten zabalkuntzaren berri zuzenik ez badugu ere, badirudi herritarren artean nahiko zabaldua zen praktika zela hauen irakurketa, euskarazkoetan egiten ziren aipamenak direla medio. Euskaraz idatzitako egutegiei dagokienez berriz, XIX. mendean batez ere Iparraldean oso publikazio mota esanguratsua izan zen. Hegotaldean XX. mendera arte itxaron behar dugu euskarazko egutegien irakurketa zabaldu, orokortu eta iraunkortzeko.

Euskaraz idatzitako almanakek eta egutegiek gazteleraz idatzi ziren egutegien ereduari jarraitu zioten.

Gehienetan adierazita zetorren gaztelerazko egutegiak bete zuen espazioa ordezkatzeko zuten nahia,¹⁶ neurri handi batean berauen bertsio euskalduna izan zirelarik: batetik, egutegia, familia osoarentzat pentsatua zegoen, adin guztietako familia-kideentzat. Bestetik, modu argian eta errazean egon behar zuen idatzia, guztien eskura egon zedin. Eta eguneroko bizitza egoki eraman

15 Ikus, CHARTIER, R. *Libros, lecturas y lectores en la Edad Moderna*. Madrid: Alianza, 1993.


16 Ikus, adibidez, Tolosako Pedro Gurruchaga-ren moldiztegiaren 1865an argitaratu zen *Euscaldun necazarien adisquidea eta guiaria persona-clase guztientzat ona dana au da*, 1866garren urteraco egunaria edo pronosticoa-ren "Itz aurrena". Koldo Mitxelena. Fondo Gordeak: C -222 F-20.

ahal izateko, gizarteratzeko hitz batean, oinarritzko informazioa eta ikasbideak eskaini behar zizkion familia-kide bakoitzari. Horrekin batera, irakurleak bere heziketa moralean orientabide egokia izango zuela ziurtatu behar zuen, gizartearen ordenuarentzat oinarritzkoak ziren balioak transmitituko zitzaizkiolarik. Zabaltzen zituzten mezuak herritar arruntaren beharrei erantzuteko eginak izanik, hizkuntza erraz eta argian –erraz ulertu eta gogoan hartzeko moduan– idatziak egonik eta zuten salneurri merkea eta formatu zabalgarria kontutan edukirik, pentsa daiteke herri xehean izan zuten hedapena zabala izan zela. Uste hori indartzeraz dator, halaber, egutegi askok izan zuten bizitza luzea. Horietako adibide esanguratsu bat dugu *Euzkel-Egutegiya*.¹⁷

Lehenengo urteko egutegia Euskal Esnalea elkarteak argitaratu zuen 1909. urtean *Euskal-Esnalea'ren Egundiya* izenarekin, eta ondorengo urteetan *Euzkel-Egutegiya* izenarekin argitaratuko zen, orain, Eusebio Lopezen moldiztegian, eta bereziki I. Lopez Mendizabalen ardurapean.

Egutegiaren eragileek euskara zabaltzeko bide garrantzitsu gisa sortu zuten berau. Hormarako egutegi gisa kaleratua izanik, tako moduan jarri zen salgai, paretan zintzilikatzeko, José Eizaguirre jaunak

17 Horretaz gain hainbat egutegi eta almanaka argitaratu zen lehenagotik euskal herrialdeetan: Joannes Leizarragak argitaraturiko *Kalendrera* (1571), J.P. Ulibarrik 1815ean plazaraturiko *Eusquerasco egunaria erderazcotie itzuliya Vizcaya, Guipúzcoa eta Arabaco probintziarentzat 1815garren urteraco*; Serafin Barojaren *Santo Tomasco Feriya* (1877), etab. Baina besterik ez zen izan hain denbora luzean iraun zuena eta hainbeste irakurle izan zituen.



7. *Euzkel-Egutegiya Tolosan E. López-en etxean argitaratu zen 1909. urtetik 1934ra. Horman jartzeko tako-moduko formatuaz gainera esku-liburu txikiaren tankeran ere argitaratu zuten. Beraren osagarri gisa, argitara eman zen Euzkel-Egutegi txikiya (1910-1920) sakelerako egutegia. Bien artean luzaroan bereganatu zuten irakurlego herritar euskalduna.*

margoturiko euskal kutsua zuen marrazkiren batekin. Edukia zela eta, aurrealdekoa eta atzealdekoa bereizirik zeuden. Aurrealdekoa egutegi guztien antzekoa zen, egunaren inguruko xehetasunak emango zituen. Atzealdean berriz, eduki atsegin eta entretenigarri ugari eskaintzen zen. Egileen partaidetza zabala eta anitza zen eta honek aberastasuna ematen zion. Saiatu omen ziren ahalik eta salneurrikerik merkeena jartzen, egutegia edonorentzat eskuragarria izan zedin, eta dirua ez zedin euskara irakurtzeko oztopo izan, helburua ahalik eta jende gehienak irakurtzea baitzen. Xede nagusia euskaldunak euskaraz irakurtzen zaletzea eta ohitzea zen.

Euskaldun sentitzen zen orok eskuratuko zuela uste zuten egutegia bultzatu zutenek “...Euskaldun batek ere ez luke gelditu biar egundi au erosi gabe. Besterik ez bada erderazko nolabaiteko Kalendario lasaikeriz betetakoen ordezkari edukitzeagatik ere bat. Baserriyeko sukaldietan eta kale-eche eta jauregiyeko tokirik onenian jarri biar da egundi au. Ta egunero gure begiyen aurrian egon biar duben gauza nola baitan, poliki-poliki, piskabana, aitzenerako on asko egin lezake euskeraren alde. Uste degun, ba, euskaldun on denak gure Egundiya erosiko dutela.”¹⁸

Egutegian agertutako mezu asko hedatu ziren aldi berean, beste bide batzuetatik: eguneroko prentsan, kultur prentsa espezializatuan (RIEV, Euskal-Esnalea, Euskal-Erria etab.), baita Itz-Jostaldi eta Euskal Festetan, batik bat bertan irakurritako hitzaldietan. Baina egutegian, mezu horiek modu sinpleagoan agertzen ziren, herritarrak gogoan, irakurketa modu arinari begira.

Prentsa itxura zuen, euskaraz idatzita zeuden artikulua eta idatzi guztiak (garaiko kultur aldizkarietan gertatzen ez zena), ia dena gipuzkeraz, irakur errazak, urte askotan zehar argitaratuak izan ziren.

Egutegiak zuen hezkuntzarako balioaz ederki jabetuta zeuden berau bultzatu zuten euskaltzaleak, ondorengo idatzian ikus daitekeenez: “(...) Gure egundia ez dala ezertarako...Ator, gizarajo ori: ¿asteko egun guztien izenak euskeraz ondo baialdakizkik? Ik bai, apika, baña beste askok ez. Eta ortarako aukerako liburu bat artuta parra-parra egunen izenak ikasten noizbait euskaldunak asiko dirala uste al dek? Eta ik, egunen izenak badakizkik ere, urteko ille guztien izenak euskeraz ezetz ondo esan? Eta i ere, liburu bat artuta ¿asiko alaiz beñere izen aiek ikasten? ¡Bai zera! Gauza oiek ez dizkik iñork ikasi nai, ikasteko lan pñin bat egin bearra zeok-eta. Ona bada egi aundi-aundi bat: iñork (ez askok beintzat) ez dik euskera ikasi nai, ortarako lan apur bat egin bear baldin bada. Euskera erakusteko ikasleak lan egin gabe erakusteko bide bat aurkitu bear genduan: orregatik egundia argitaratuko diagu. Urte betea, 52 aldiz egun bakoitzaren izena erakutsiko dik egundiak. Urte betean, 30 aldiz, (...) erakutsiko dik illee bakoitzaren izena. Ta nai ta nai ez, ikusi bear izen oiek, egundia erosiko duten guztiak. Eta uste diat, astotño bat ez izan ezkerro behintzat, 30 edo 52 aldiz gauza bat esan ezkerro ikasi leikeala. Geiago ere baziok oraindik, Atze-aldean, alderantzian, orri bakoitzak ipui, tñirristada, ziribiursa, alegia, edo onelako beste gauza politen bat zekarrek euskeraz: geien-geienera jo ta ere hogeï errenkada. Ta ik (eta ik bezela besteak) parra egiteagatik eta euskeraz irakurtzen ikasteagatik: ez aldiñuk egunero hogeï errenkada irakurri naiko? (...) Ez lagun, ez; ez dek alperrikako lana. Egundia erosi ta humilla gabero, apalondoan, egun artako orria irakurri erazi; au dek ik egin bear dekana. Ta erorre

18 Euskal-Esnalea, 1908, Azaruak 15, 11.zb., 155-156, “El calendario de Euskal-Esnalea”.

irakurtzea ere ez zaik gaizki etorriko (...) Erosi ezak egundia, ta jarri ezak ire etseko orman, gela agirienean: ondo ikusi dedilla. Ta gabetan irakurri orria ta ume tsikiai ere irakurri erazi. Ta, bai ta aundiai ere. Emazteak irakurtzen badik, obe, orain eta oraindik obeago neskameak ere irakurtzen badik. Au egin eta egin erazita, ikusiko dek urte azkenerako ire etseko umiak eta zarrak euskeraz, batere lanik egin gabe ederki irakurriko dutela.(...)”.¹⁹

1909 eta 1934 bitartean, gipuzkoar askok irakurri ei zituzten bere baitan zituen orrietako mezuak, zirela



8. Horman jartzeko egutegi gisa argitaratzeaz gain, liburuxka moduan ere argitaratu zen Euzkel-Egutegiya. Formatu honek, horma-modukoak ez bezala, Irakurritakoa gordetzeko aukera eskaintzen zion irakurleari.

euskara eta euskaltzaletasunarekin loturikoak, kultura orokorrekoak, moral eta erlijiosoak, umorezkoak edota denbora-pasakoak. Aurrez zabaldu ziren egutegiek ez bezala, urte luzez iraun zuten, herritarren artean arrakasta handia lortuz. Irakurketa ohitura bat finkatu zuen eta ondorengo antzeko hormarako egutegien sorrerarako bidea egin zuen, Argia egutegia kasu. Horrelako beste adibiderik (izaera literario, kulturala eta hezitzailea zuena) ez dugu aurkituko Gipuzkoan –ez literaturan, ez prentsaren esparruan ez eta irakaskuntza-liburuen alorrean ere– garai horretan, dotrinaren kasua kenduta.

Urte sasoi horiei dagokienez, halaber, ezin ditugu azpimarratu gabe utzi herritarren artean euskarazko ahozko zein idatzizko komunikazioa areagotzeko hainbat euskaltzalek, eta bere inguruan bilduriko talde eta elkartek, sortu eta bultzatu zituzten proiektuak. Ekintza horien oihartzuna herritar xehearengana iritsi ez bazen ere, euskal kultura idatzia modernizazio bidean jartzen eta kultura-elite euskaldun eta euskaltzalea finkatzen lagundu zuten proiektu garrantzitsuak izan ziren heinean kontutan hartzekoak dira.

Ekintza eta jarduera horietako batzuk herri eta herrialdeko administrazio publikoek bultzatu zituzten. Ildo honetan, bereziki aipatu beharrekoa da lau herrialdeetako Diputazioek egin zuten lana: bere gain hartu behar zuten langileria kontratatzerako garaian euskararen ezagutza eskatuaz adibidez,²⁰

19 “Nere eskutitzak” ((Eup.)) in *Euskal-Esnalea*, 1908, 12.zb., lotazillak 15, 176.orr.

20 Euskaltzaindia. *El libro blanco del euskera*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1977. 457, 431-442 orr.; Euskara ezagutzearen eskaera Bilboko Hospitale Zibilean, adibidez, (A.A.D.V. karp. 1138/3, 1918 eta karp. 2005/8, 1920.

euskarazko katedren sorrera bultzatuz bigarren mailako irakaskuntzako institutuetan, maisu-maistra eskoletan eta apaiztegian; euskarazko deklamazio eskolak sortuz etab;²¹ kale izendegietan, bando eta zirkularretan euskararen erabilera bultzatuz;²² euskal liburugintzarako laguntza emanez lehiaketan bitartez eta erakunde eta liburutegiak euskal liburuz hornituz.²³

Lehen adierazi bezala, nabarmendu behar ditugu euskaltzale askok eta berauen inguruko talde eta elkarteek abian jarritako ekimenak, zenbaitetan administrazio publikoekin lankidetzan burutu zirenak.



9. Arturo Campion. Idazle oparoa eta euskaltzale eta kultur eragile nekaezina. Bere garaiko hainbat kultur proiekturen sorkuntzan eta bilakaeran hartu zuen parte zuzena, besteak beste Euskal itz-jostaldien Batzarrean eta Euskal Esnalea elkartearen.

Horien artekoa dugu A. Campion jauna eta berak literatura zein lanketa zientifikoa indartzeko ezarri zituen helburuei jarraikiz sortu zuen lehen elkarte, Nafarroako Euskal-Elkargoa.

Berak argitaratu zuen 1877an *Revista Euskara* (1878-1883) abiapuntutzat hartuta, aldizkari gehiago sortu ziren ondoren: Gasteizen *Revista de las Provincias Euskara* (1878-79), Donostian *Euskal Erria* (1880-1918), Bilbon *Revista de Vizcaya* 1.885ean, Iparraldean *Euskalduna* 1.888an, etab. Elkarte eta aldizkari horien inguruan bultzatu ziren, besteak beste, Lore Jokoak Euskal Herrian zehar, baita euskal kultura eta hizkuntzaren defentsa helburutzat zuten intelektual taldeak ere.

Foruen deuseztapenaren ondorioz loratu zen Kultur Pizkundean –Literatur Pizkundera bezala ere izendatua

21 Euskararen katedrak, dohainik eta borondatezkoak, hasiko dira ezartzen Bigarren Mailako Irakaskuntzarako Institutuetan, eta poliki-poliki ugarituz joango dira taldeak eta ikasle kopuruak. Gasteizko Institutuak proposatu zuen, adibidez, beste hizkuntza bizien artean euskararen ikaskuntza (Arabako Diputazioko Aktak 6/11/1882). Bizkaiko Institutua izan zen honelako katedra luzean babestu zuena R.M de Azkue jaunaren esku. (A.A. D.V. 1037/1-5). Seminario Diocesanoak ere eskatu zuen katedra bat sortzea 1914an (A.A.D.V. 1037/7). Bizkaia eta Gipuzkoako maisu-maistren eskolek mantendu zuten honelako katedrarik, baita Donostiako Udalak deklamazio eskola euskalduna ere (A.M.S.S. 550 liburukia, 8. espe. 1913-15).

22 G.A.P. 8915 leg., 1896; 9470 leg, 1916; 9468 leg., 1917.

23 Liburu eta liburutegien aldeko laguntza politika oso zabaldua egon zen lau Diputazioetan. Bereziki aipatu behar ditugu lehen irakaskuntzarako euskarazko testuak sortzeko lehiaketak (A.A.D.V. 1125/10, 1918), euskarazko liburuaren babesa (A.A.D.V. 988/16, 1919) eta liburutegi mugikorrak eta publikoak (A.A.D.V. 963/6, 1905-1932; A.M.P. leg. 6, 1922; A.P.G. 1466, 1882-1951).

izan dena– Hegoaldean zabaltzen hasi ziren jada Iparraldean D’Abbadie²⁴ jaunak 1850. urtetik aurrera antolatu zituen Lore Jokoak .

Festa hauek mugaz bestaldean agertu izana bat dator, Europan zein Espainian bertan ere, liberalismoaren ezarpenak zekartzan politika zentralizatzailerak zirela eta, hedatutako mugimenduekin. Hauekiko erreakzio gisa, Katalunian eta Estatuko beste zonalde batzuetan (Valentzia, Galizia etab) bertako literaturaren errebindikazioari hasiera eman zitzaion. Iparraldean iraun bazuen ere, Hegoaldean, 1876. urtean, azken guda karlistaren ondoren, Foruak galtzearen eraginez sortu zen literatur eta kultur mugimenduekin batera eman zitzaien hasiera festa hauei.

Mugaz honako lehenengo euskal festak Elizondon (1879) ospatu ziren, Nafarroako Euskal-Elkargoaren bultzadaz, Iparraldeko tradizioa jaso eta Lore Jokoei hasiera emanaz. Elizondoko lehenengo lehiaketa hartan presente egon ziren, beste gizon ospetsuen artean, Iparraldeko festen babesle ziren D’Abbadie eta Duvoisin, Iparragirre poeta herrikoia eta Manterola, gerora Gipuzkoako festen bultzatzaileetarikoa bat izango zena. Hasiera urte hartatik aurrera Euskal Herri osoan barrena ospatu ziren Euskal Festak, izen desberdinekin eta euskarazko literatur produkzioaren errebindikazioa xede. Aparteko garrantzia hartu zuten Gipuzkoan eta Iparraldean, bi arrazoiengatik batez ere: iraunkorki ospatu zirelako Itz-jostaldiak eta Euskal-Festak, eta hauetan beste herrialdeetan baino presentzia handiagoa izan zuelako euskarak.

Donostiak soilik eutsi zion modu iraunkorrean (1880. urtetik 1918ra), “Euskal itz-jostaldiak” edota “Juegos Florales Euskaros” izenarekin. Antolatzailea Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea zen. Egun

beteko ospakizun-emanaldiak biltzen zituen musika emankizunak, literatur lehiaketan sarituak izan ziren lanak eta garaiko bertsolari ospetsuenak. Bertsolariak ez ezik, lehiaketa hauetan garaiko euskaltzale eta idazleen belaunaldi oso batek hartu zuen parte; besteak beste, Karmelo Etxegarai, Ramon Artola, Biktoriano Iraola, Felipe Arrese, Jose Artola, Migel Antonio Iñarra, Francisco López Alén, Domingo Agirre, Toribio Alzaga, Arturo Campion, Gregorio Arrue etab.

Festa hauek, Katalunian ospatu zirenen antzera, bertako hizkuntza berreskuratzea zuten helburu nagusi, zegokion literatura garatuz. Egun bateko ospakizunaren mugak gaindituz, Batzarreak saritutako lanak urteroko memorietan eta *Euskal Erria* aldizkarian argitaratzen zituen, baita monografia moduan argitaratu ere. Honela, ordura arte ez zegoen argitalpen multzo iraunkor bat sortu zen lehiaketa hauen inguruan, idazleak idaztera

24 A. D’Abbadieren babespean eta festa hauek ospatu zituzten herrietako (Urruñan 1853az geroztik eta Saran 1862az geroztik) alkateen laguntzaz (eta M. Laborde-Noguez bezalako pertsonaien dirulaguntzaz) festa-literatur tradizio oso bati eman zitzaion hasiera, bertan ohiko erlijio ekitaldiak eta garaiko kirol lehiaketak elementu berri batekin, euskaraz idatziriko literatur lehiaketarekin alegia, bat eginez. Halere, oraindik, alderdi berri hau bigarren mailakoa izan zen. Bai festa-egitarauan bertan, bai sari banaketan bertan ikus daiteke aipatu garrantzia, kirol eta folklore aspektuekin banatzen baita (pilota partidak, dantzari, irrintzilari, edota danbolin-joleen lehiaketak, bertsolariak eta poesia). Aipatutakoaren adibide bat aurki dezakegu 1875. ean Sarako euskal festetan egin sari banaketan, non diru kopuru berbera (80 libera) jasoko zuten poesia lehiaketan irabazle izan zenak (makila bat ere jasoko zuen honek), erreboteko jokalaria onenak, blé pilota jokalaria onenak eta bertsolari onenak.



10. Santo Tomas feria egunean banatzen zituen Batzarreak Itz-Jostaldi edo Lore Jokoetan irabazitako sariak; antzerki emanaldiak ere egun horretan egiten ziren.

bultzatzeko motibazioa eduki zezaten eta irakurleei euskaraz irakurtzeko aukerak zabaltzeko asmoarekin.

Euskararen erabilera zabaltzeko helburuarekin ere literatur festa horien barruan beste jarduera bati eman zitzaion hasiera: 15 urtetik beherako gazteentzat antolaturiko irakurketa eta idazketa ariketak edo azterketak. Azterketa hauen bitartez umeak, gazteak, euskaraz irakurri eta idaztearen ikaskuntzarantz motibatzea lortu nahi zen. Gerora irakurle eta idazle izango ziren gazteei laguntza eta babesa ematea alegia.

Euskal Itz-Jostaldiak ²⁵ 1894. urte arte Donostian eratu ziren, eta bereziki literatura eta artearen inguruko festak ziren. Aurrerago ordea, 1896. urtetik aurrera, Euskal Festak (Fiestas Euskaras) izenaren pean ospatu ziren festa multzo baten barruan kokatuak azaldu ziren, Gipuzkoako herri askotan antolatuz joango zirenak. Egoera aldaketa

hau, hain zuzen, Diputazioak Gipuzkoan ospatu ohi ziren ganadu erakusketei eman nahi zien bultzada berriaren eraginez etorri zen. Modu honetan, Diputazioak ospakizun berean bildu zituen nekazaritza eta ganadu erakusketak, eta literatur lehiaketak.

Diputazioak finkatu zuen zein urtetan eta zein herritan burutuko ziren aipatu nekazaritza eta ganadu lehiaketa

-
- 25 Donostiako Euskal Itz-Jostaldiez gain, literatur lehiaketen bidez euskararen presentzia nolabait bermatzen saiatu ziren beste festa batzuk ere antolatu ziren. Iraupen motzeko eta efemeride zehatzen ospakizunen inguruan eratuak, herrialde guztietan bultzatu ziren. Aipa daitezke ondorengoak: Donostiako Udalak 1881.eko maiatzaren 15ean antolatu zuen “Euskarazko Josta-Guda Pedro Calderón de la Barca-ren onorean” (*Euskal Erria*, II eta III tomoak, 233-239.orr); 1884. urteko irailaren 1ean ospatu zen “Aingeruen Erregiñ, Euskal-Erriko kosta eta Ichasoetako Gordelari gaidinkako, eta Debako erri politaren Altiste zerukoya dan Ama Birjiña Iziarkoaren Onran. Josta Guda” (*Euskal Erria*, XI. Tomoa, 2. seihilekoa, 1884, 42-43 orr.); Gipuzkoan 1883an (Hondarribian. *Euskal Erria*, IX. Tomoa, bigarren seihilekoa, 1883), 1886an (Urnietan. *Euskal Erria*, XV. Tomoa, bigarren seihilekoa 1886) eta 1893an (Azpeitian. *Euskal Erria*, XXIX. Tomoa, bigarren seihilekoa, 1893) ospatutako Euskal Festak. Nafarroako Berako herrian 1880an (*Euskal Erria*, I. Tomoa, uztai-abend, 1880) eta 1895an (*Euskal Erria*, XXXIII tomoa, bigarren seihilekoa, 1895. Nafarroan ospatu ziren festen zerrenda eta zehaztasunak ere ikus daitezke in ERIZE, X.(1997): Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936. Soziolinguistika Historikoa eta Hizkuntza Gutxituen Bizitza. Nafarroako Gobernu) ospatutako Euskal Festak. Bilboko Euskalerria elkarteak 1882an antolatu zituen Euskal Festak (Fiestas euskaras que se celebrarán en la sociedad Euskalerria de Bilbao). Bilbao: Establecimiento Tipográfico de P. Velasco. 1882, 3.orr.; Durangon 1885an (*Euskal Erria*, XII. Tomoa, bigarren seihilekoa, 1885.) zein Gernikan 1888an (*Euskal Erria*, XIII eta XIX, 1888) ospatutakoak, Markinan 1883an (*Euskal Erria*, VIII eta IX tomoak, 1883) edota Iurretan 1891an (*Euskal Erria*, XXIV tomoa, bigarren seihilekoa, 1891) ospatutakoak.

probintzialak, 1896.etik 1913. urte bitartekoak zehaztuz. Aukeratutako herriak honako hauek ziren: Arrasate, Oiartzun, Zestoa, Zumarraga, Zumaia, Azpeitia, Oñati, Irun, Ordizia, Bergara, Donostia, Elgoibar, Eibar, Hernani, Azkoitia, Segura, Zarautz, eta Tolosa.²⁶



11. Euskal-Festetan Itz-jostaldiak festa testuinguru orokorragoaren barruan txertatu ziren, hiri testuingurutik atera eta herrialde osoan zehar Diputazioak aurrez ezarri herrietan barrena zabaldu zirelarik, herrialdean abereen feria eta erakusketak berrindartzeko Diputazioak zuen asmoari erantzunez. Uztartu egin ziren, beraz, festa berean nekazal eta abeltzain ospakizuna eta literatur lehiaketak.

Festa hauetan, D'Abbadie jaunak Iparraldean antolatzen zituen ospakizunen ezaugarriak biltzen ziren: euskal tradizioak, dantzak, bertsolariak, feria, abelburuen lehiaketa eta literatur lehiaketa. Festa itxurako lehiaketak izateaz gain, bilgune, eztabaida-gune eta erabakiak hartzeko espazio garrantzitsua ere izan ziren, nekazaritza inguruko erabakiak hartzeko, noski, baina baita kultura, hizkuntza eta hezkuntza arloko eztabaidak eta erabakiak hartzeko gunea ere. Festa hauetan, bestalde, garrantzi handia izan zuten alderdiak izan ziren, hitzaldiena, sermoiarena, brindisarena eta protokoloarena. Espazio berri hau mitin eta hitzaldietarako oso testuinguru aproposa zen, garaiko hizkuntza, kultura eta politika errealitatearen inguruan euskaltzaleek zituzten kezak eta egin hausnarketak azaltzeko parada paregabea eskaintzen zuena.

Festa hauek espazioen irekiera ahalbideratu zuten, non nekazari girokoa zena eta hirikoa zena sinbiosi perfektuan azaltzen ziren, beti ere, eta Gipuzkoako lehiaketetan batik bat, nekazari izaera tradizionala zuena birbaloratzeko helburuarekin. Poliki-poliki, euskal identitatearen adierazpen ezaugarri bilakatu ziren. Prozesu honekin ere zerikusia izan zuen probintzia zein

26 Gipuzkoako egoera zehatzaz bestera, epealdi horretan ere Euskal Herri osoan ospatu zen beste euskal festa zenbait. Nabarmentzekoak dira: Donibane Lohitzunen 1897an ospatu "Fiestas de la Tradición Vasca", Bilbon 1901ean eraturiko "Primeros Juegos Florales", eta 1904an Donostian, Tolosan eta Ordizian burutu ziren "Gran Fiesta de la Tradición del País Vasco". Festa hauek eskaintzen zuten testuingurua oso aproposa zen hitzaldietarako, bertan garaiko nagusi eta euskaltzaleek azaltzen zituztelarik beraien kezak.

herrietako korporazioen esku hartzeak, espresuki helburu horretarako erakunde kolaboratzaileak sortu baitzituzten.

Jostaldi eta Festetan saritutako idazle gehienak, garaiko kultur aldizkarietan idazten zutenak ziren, baita egutegietan ere –batez ere *Euzkel-Egutegiya*-n-. Aldi berean, idazle horietako asko Euskal-itx jostaldien Batzarrea, Euskal-Esnalea, Euskaltzaleen Biltzarra etab. bezalako elkarteetako kide esanguratsuak izan ziren. Finean, guztiek klase intelektual, letratu, elebidun eta kulturbiduna –elite kulturala– osatzen zuten, euskal kultura idatzia herritarren artean hedatze prozesuan parte-hartze zuzena eduki zuena.²⁷

XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetan, herritarren irakurketa joerak aurreko mendeetako ildotik bazihoazen ere, idazketarako joerak aldatzen hasiak ziren, eta kultura idatziaren ekoizpena zabaltzen eta hedatzen hasia zen pixkanaka-pixkanaka. Ekoizpena kuantitatiboki gaintitu zelarik, dibertsifikazio nabarmena gauzatu zen eta apurka formazio erlijiosora zuzenduriko lanek izan zuten nagusitasuna desagertuz joan zen, nahiz eta idatzi zen guztiaren oinarria funtsean katolikoa izan oso.

Orduan hasi zen, euskarazko idazketa literarioa beste idazketa motetatik –erlijiosozkotik, linguistikotatik– bereizten eta estatutu soziokultural berariazkoa edukitzen. Garai haietan euskal literaturak dimentsio berria eta aurrekoarekiko erabat bestelakoa hartu zuen: erromantikoa, nazionala eta herritarra. Literatur lanen ugaltze eta dibertsifikatzeaz gainera, epealdia, azpimarragarria da nagusiki Hegoaldean sortu ziren, eta nolabaiteko sendotasuna eduki zuten, kultur talde ugariengatik eta, gehienetan haiei lotuta argitaratu ziren aldizkariengatik. Euskarazko aldizkariaren benetako

“boom”-a, 20ko hamarkada inguruan izan zen, eta 30ekoaren erdialdera arte iraun zuen.


Euskaraz idatzitako prentsari dagokionez, 1919-1937 denbora tarte haustura-garaia izendatua izan da,²⁸ euskal kazetaritzarako garai berri baten hasiera, euskarazko kazetaritza modernitatean sartu zeneko unea alegia.

1919. urtetik aurrera euskara eguneroko prentsan sartzeko egin zen ahalegin sendoak, euskarak irrati eta komikietan izan zuen sarrerak eta denetariko kazeta-baliabideen erabilerak eraman dute Díaz Noci modernitatean sartutako euskal kazetaritzaz hitz egitera.

Aurreko garaia, beraz, Díaz Nocik ezarri 1834-1919 denbora mugen artean kokatzen denez, modernitate aurrekotzat edo euskal prentsaren hastapentzat hartua izan da. Euskal kazetaritzaren lehenengo adibidea

27 Nabarmentzekoa da, bereziki, euskarazko idatzien zabalkuntzan eman zen jauzia, Itx-jostaldi eta Euskal-Festen ospakizunak zenbait bideren bitartez ahalbideratu zuena: lehenik eta behin lehiaketarekin berarekin, aurkeztu lanetan hitz lauz zein neurtitzez idatziz eta gai askoren gaineko ekoizpena ugarituz; bigarrenik, saritutako lanak, eta kasu batzuetan aurkeztutako guztiak, urteroko memorietan, monografiatan, orri solteetan eta, ondoren, *Euskal Erria* eta *Euskalerraren alde* aldizkarietan eten barik argitaratzearen bitartez; hirugarren, ospakizunak zirela eta, euskaraz eginiko programa, kartel, zirkular eta abarren argitalpenaren bitartez, gehienetan bi hizkuntzetan azaldu baziren ere. Ekintza multzo guzti honek euskaraz idatzitako aleen banaketa eta idatzizkoaren produkzio tipo baten mantenua ahalbideratu zuen, litekeena izanik irakurlego iraunkor bat sortu izana horrela.

28 DIAZ NOCI, J. *Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937)*. *Euskal Kazetaritzaren sorrera eta garapena*. Leioa: EHU, 1992. Ikus, baita: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995.



12. 1921. urtean kaleratu zelarik, *Argia* aldizkaria euskarazko kazetagintza modernoaren hastapentzat hartua izan da. Aldizkariaren izaera modernoa aditzera ematen duten ezaugarri ugarien artean azpimarratzekoa da 1927an umeentzako propio sortu zuen gehigarria, *Txistu*. Euskarazko komikia egiteko lehenengo saiakera.

1834ean Donostian argitaratu zen *El Correo del Norte* aldizkari liberean azaldu ziren euskarazko lehenengo testuetan ikusten du, bertan liberalak azalduko zaizkigularik, nekazariak beren ideietara makurtzearren, euskaraz idatzitako prentsaz arduratu ziren lehenak. Oro har esan daiteke, XIX. mendean zehar areagotuz joan zen polarizazio politikoaren ondorioz piztu zela euskarazko kazetaritza, Ipar zein Hego Euskal Herriko prentsa, almanaka eta kazetex osatutako kazetaritza.

Foruak galdu eta gero, 80ko hamarkadatik aurrera batik bat, euskarazko kazetagintza gailurrera ailegatu zen Hego Euskal Herrian. Sasoi horretatik aurrera, Díazek esango digunez, bi korronte nagusi bereizi ziren, euskara estandarra ulertzeko modu desberdinak zituztenak: *Revista Euskara*, *Euskal Erria* edo *Euskal Esnalea* aldizkari kulturalen inguruan sorturiko korronte foruzale edo euskaltzalea batetik, Azkueren teoriatik gertu, gipuzkerako ereduari jarraitu ziona, eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetan sortu zen *Argia* aldizkariaren orrialdeetan finkatuko zena.

Eta, bestetik, Arana Goiri eta bere jarraitzaileak, azpieuskalki batzuen elementuez osaturiko bizkaierazko ereduari heltzen ziotenak, eta irakurlegoaren eskaera eta beharretatik urrundu zen neurrian kazetaritzan beste ereduak baino arrakasta txikiagoa izan zuena. Bien artean, halaber, Euskalerrriakoak leudeke, Azkuerekin, foruzaletasunean sortu eta abertzaletasunerantz jo zutenak.²⁹

29 DÍAZ NOCI, J.op.cit. 1992. Korronte hauetako aldizkari zein bultzatzaileei buruzko informazio sakonagoa aurki dezakegu autoreak prentsa abertzale-jelkidearen sorreraz, kultur abertzale-jelkideez, zein R.M. Azkue eta *Euskalerrriakoen* prentsaz eginiko ataletan.

Testuinguru horretan kokatu behar ditugu, aipatu aldizkari kulturalekin batera *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907-1936); prentsa abertzale-jelkidearen artean, adibidez, *Bizkaitarra* (1893-1895), *Baserritarra* (1897), *Gipuzkoarra* (1907-1913), *Napartarra* (1911-1918), *Arabarra* (1912-), *Euzkadi* (1913- lehenengo kultur aldizkari abertzalea), eta *Euzko Deya* (1916-1923, abertzaleen euskara hutsezko lehenengo aldizkari kulturala); Euskalerrriakoen prentsaren barruan, *Euskalduna* (1896-1909), *Euskalzale* (1897-1899), eta *Ibaizabal* (1902-1903); jelkide ez izan arren euskara nolabait erabiltzen zuten aldizkariaren artean, *Adelante* (1901-), *La Voz del Trabajo* (1901-1934), eta *El Kantabriko* (1910-); erlijio aldizkariaren artean, *Jaungoiko-Zale* (1912-1932), *Jesús'en Biotza'ren deya* (1917-1936), eta *Zeruko Argia* (1919-1936); nekazaritzari buruzko aldizkariaren artean, *Gipuzkoako Nekazaritza* (1903-1907), eta *Baserritarra* (1904-1911).

Abertzaletasuna, zentzu orokorrean, eratzeko ezinbestekoa izan zen pentsamolde zabalaren barruan kokatuak zeuden aldizkari horiek guztiak. Tokian tokiko mugak gaindituz, euskal herrialdeen zein, kasu batzuetan, Ameriketako esparrua hartzen zuen irakurlego euskaldun, euskaltzale, euzkotar edo “vascongado”aren artean saiatu ziren beraien mezua zabaltzen, ideologia jarraitzaileak bildu eta elkarren artean lotzen. Probintziaz gaindiko izaera edukitzeak, bestalde, ideologiaren zabalkuntza mailan eragiteaz gain maila linguistikoa ere izan zuen bere garrantzia. Ohar gaitezen lehenengo urte horietan oraindik ez zela euskara baturik ezarri ez eta onartu ere; beraz, hainbat kasutan, euskara gutxi edo gehiago erabiltzen zuten aldizkariak euskalkiak erabiltzera jo behar izan zuten



13. Baserritarra (1904-1911). Kultur berreskurapen testuinguruan euskararen alde jardungo zuten aldizkariaren multzoa sortu zen. Aldizkari horietako asko elebidumak ziren, eta beraien orrietan idatzi zuten garaiko euskal intelektualek. Baserritarra eta Gipuzkoako Nekazaritza (1903-1907), bizitza motza eduki arren, azpimarratzekoak dira elite euskaltzalearen aldetik nekazal inguruko herritarrengana hurbiltzeko egin ziren eginahalen adibide esanguratsua izan ziren heinean.

beren mezuaren zabalkundearen mesederako.³⁰ Zentzu horretan, joera nagusia aldizkariaren sorlekuari zegokion euskalkian oinarrituriko idazkera erabiltzea izan zen,³¹ eta horrek, herrialdeen artean sortu zen aldizkarien mugikortasuna ikusirik, irakurleari zenbait esfortzu gehigarri eskatzen zion, irakurketan gaitze maila landua beharrezkoa izango zitzaion, norberaren euskalkia ez zen beste batean idatziriko testuak irakurri behar izaten zutenen kasuetan bederen. Egoera hau areagotu egingo zen idatzita ematen zen euskalkia irakurlearen ahozko euskalkitik nabarmenki aldentzen zenean, edota erabiltzen ziren euskalkiaren arauak irakurlearen ahozko erreferentzia hurbilenetik (euskalki berekoa izanik) gehiegi urruntzen zireneko egoeretan.

Kultura idatzia areagotuz zihoan neurrian are eta beharrezkoagoa ikusten zen euskara idatziaren inguruko arau batzuen finkapena. Halere, mendearen hasierako hamarkada haietan ez zen kontsensuzko erabakirik hartu. Aitzitik, aldizkarien ereduez adierazi dugun legez, idazle eta euskaltzale-taldeen arabera eredu eta bide bereziak jorratzeari ekin zitzaion. Mendearen amaiera inguruan finkatu zen euskara baturanzko lehenengo pausua Euskaltzaindiaren sorrera izan zen. Bere aldeko aldarrikapenak 1898tik jada eginak baziren ere, ez zen 1919. urte arte, Eusko-Ikaskuntzaren babespean aukera egokitu zitzaion arte, erakundetu. Eusko Ikaskuntza –Sociedad de Estudios Vascos (1918)³² izan zen hain zuzen, egin zituen kongresuen bitartez, Espainiako Gerra Zibila heldu bitartean, euskal kulturaren eta hizkuntzaren normalkuntza helburu nagusitzat zuten intelektualak bildu zituen erakundea.

ESKOLA ETA EUSKARAREN IKASKUNTZA

XX. mendean, Estatu frantziarraren eta espainiarraren politikekin bat, herritarren eskolatzea finkatuz joan zen Euskal Herrian. Eta, horrekin batera ere, nahiko ezarria geratu zen herritarren artean irakurri eta idazteko trebetasuna. Trebetasun horiek, bestalde, nagusiki Estatu hizkuntzetan eskuratu izan zituzten herritarrek, gaztelaniaz edo frantsesez. Halere, mende honek ezagutu du, ordura arte ez bezala, eskolaren euskalduntze prozesu itzela, hots, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garapen historikoki aurrekaririk gabekoa, eta euskal curriculumaren eraikuntza.

Euskaldunei euskarazko irakaskuntza eskaintzeko lehenengo saiakera pisuzkoak mendearen hasierako hamarkadetan bideratu ziren. Bereziki II. Errepublikako

30 Joera honen adibide ditugu *Ibaizabal* aldizkaria eta *Jesus'en Biotza'ren Deya*, bata zein bestea Gipuzkeraz eta Bizkaieraz idatziak. Are gehiago, lehenengoa nahiz Bizkaian sortua izan gehiago saldu eta irakurriko da Gipuzkoan Bizkaian baino (Bilbo hiriburua alde batera utzita).

31 Sorlekuko euskalkia erabiltzeak ez du esanahi, bestalde, hizkuntz eredu bateraturantz joko ez denik. Hor ditugu sabiniar ereduaren arau ortografikoak itsu-itsuan jarraituko dituzten aldizkariak, hala nola *Gipuzkoarra* (nahiz gipuzkeraz idatzia izan), *Euzko-Deya*, *Euzkadi* etab., edota Azkueren teoriak azaltzeko baliabide nagusi izan ziren *Euskaltzale* eta *Ibaizabal* aldizkariak.

32 Elkartearen barnean hizkuntza eta irakaskuntza sailak sortu ziren, bertan Landeta, Elizalde, Belaustegigoitia etab. izan zirelarik, besteak beste, irakaskuntzan euskararen erabilera bultzatu zutenak.

garaian. Hor ezarri ziren gerora, mendearen amaiera aldera, finkatu ziren euskal eskola eta euskal curriculumerako lehenengo oinarri sendoak. Halere, 1936an piztu zen Gerra Zibilak, eta ondorengo hamarkadetan, lehenengo bietan nabarmenen, frankismoak eraman zuen politikak erabat zapuztu zituen, beste proiektu asko legeztatu, euskarazko irakaskuntzarako saiakerak. Euskararen zapalkuntza izan zen Estatu berriaren helburu nagusietariko bat. Euskara espazio eta erabilera publikotik erabat desagerrarazi zuten, etxe-espazio eta esparru pribatuetan ezkutatua geratuz. Euskal kultura isiltasunaren kultura izatera pasa zen.

Frankismo garaia azken aldera, ordea, euskararen berreskurapen publikoa abian jarri zen pausoz pauso, klandestinitate egoeran hasiera batean, eta etsi-etsi nolabaiteko onarpen egoeran sartuz ondoren. Isiltasunaren kultura batetik euskal identitatearen ezaugarrien errebindikazio publikora igaro zen, batik bat 60ko hamarkadatik aurrera. Errebindikazio horiek bideratzeko eta ekintzak aurrera eramateko sortu ziren gizarte eta kultur erakunde berriak. Era horretan, publikotasun-mailan euskararen erabilera ezarri eta garatzeko asmotan burutu ziren ekintza eta proposamenen arloan etapa interesgarrienetarikoa izan zen 70eko hamarkada. 80koa, berriz, aurreko hamarkadan zehar bultzatu ziren euskararen aldeko adierazpen sozialak bideratu, arautu, antolatu eta erakundetuz joan zireneko garaia du.

Kontutan izan, hizkuntza eta kultura arloetan bideratu zen prozesua etengabeko aldaketan murgildurik zegoen gizartean kokatu behar dugula. Batetik, Nafarroa eta Arabako 60ko hamarkadako garapen industrial, turismoaren proiektzioa Iparraldean, eta migrazio

mugimenduak Euskal Herri osoan. Bestetik, Hegoaldea banatuko duten bi lurralde administrazio sorrerak, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa, eta bere garaian frankismoaren aurkako borrokan giltzarri izan ziren eta momentuko egoera politikoan ekintzarako ardatz nagusi bihurtu ziren kultura eta hizkuntzaren berreskurapenaren aldeko mugimenduek, euskararen ahozko zein idatzizko erabilera garapen prozesu ezberdinak bideraraziko dituzte.

Frankismo garaiko eskola legeek espresuki galarazi zuten euskararen erabilera (1945eko oinarrizko irakaskuntzarako legea, eta 1967ko testua). Legedia leundu zen 1970ko Lege Orokorren ondoren eta batez ere 1975. urtetik aurrera. Izan ere, 1978ko Konstituzioak Estatu Espainiarraren hizkuntza ofizial bat baino gehiago errekonozitzen zituelarik, Autonomia Estatutuen esku utzi zuen ofizialtasunaren garapena. 1979ko 1.049 Erret Dekretuaren arabera sartu zen euskara irakaskuntza sistemaren barruan. Horren ondoren araubide ugaria sortu da euskararen erabilera normaltzeari begira.³³

Bien bitartean, gerra aurreko euskal eskolen esperientziaren ildoari nolabaiteko jarraipena emanez, martxan jarri zen, orain klandestinitatean, haur euskaldunei oinarrizko ikaskuntzak (irakurtzen eta idazten ikastea barne) euskaraz egiteko aukera eskainiko zion irakaskuntza modua.

33 *Euskarari buruzko araubidea. Normativa sobre el euskera*. Vitoria-Gasteiz. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea-Instituto Vasco de Administración Pública. 1986 eta ondorengoak.

Lehenengo modu murriztean, eta gero pixkanaka zabalduz euskarazko eskolen bi esperientzia sortu ziren: Donostian Elbira Zipitriaren inguruan sortu ziren Etxe-eskolak (1946-1969) bata, eta 1960tik aurrera garatzen hasi zen Ikastolen mugimendua bestea.

Donostiako Etxe-eskolak, eskola txikiak ziren (10en bat ikaslez ostuak) andereño titular bakoitzak bere etxean martxan jarri zuena. Euskara mantentzea zen



14. Gerra aurretik ikasi eta aritutako maistra izan zen Elbira Zipitria. Gerra ondoren, halaber, bere etxe-eskola ireki zuen Donostian, bertan bederatzi urte bitarteko neska-mutikoei oinarrizko ikasketak euskaraz ematen zitzaizkielarik. Beren etxe-eskolak sortuko zituzten hainbat maistren irakasle eta formatzailea ere izan zen. Irudian Elbiraren gela bati egindako erasoa.

bilatzen zena. Ume euskaldunei zuzenduta zeudelarik, haiei euskaraz ongi irakurtzen eta idazten irakastea zuten helburu, gero gazteleraz egin ahal zezaten. Eskola horietan 9 urte bitarteko haurrei irakasten zitzairen. Gero *ingreso*a egiten zen, eta gaztelerazko eskola pribatuetan jarraitzen zuten. Honelako esperientzia Donostian bakarrik sortu zen eta gerra aurreko ereduaren jarraipena izan zen nagusiki.

Aldi berean, testuinguru industrializatu eta gizarte urbanora egokituko zen euskal kultura modernizatuaren aldeko oihua gero eta ozenago entzuten hasi zen. Honela, euskaraz alfabetatzearen eta euskaraz eskolatzearen aldeko mugimendua sortzen hasi zen, eta Ricardo Arregi izan zen aldarrikapen horien alde ahotsa ozenkien zabaldu zuenetakoa. Egoera klandestinoan, noski. Urte batzuen buruan, etxe-eskola eredu testuinguru soziologiko eta ideologiko berrian txertatu zen, *ikastola* sortuz. Erabat euskaraz izango zen irakaskuntzaren abiapuntua izan zen, eta lehenengo urteetan zegoen sare eta aukera bakarra. Une haietan artikulatzen hasi zen euskaraz izango zen hezkuntza prozesu orokorra. Ordura arte burutu ziren euskarazko irakaskuntza esperientziak (gerra aurrekoak eta etxe-eskolak) batik bat euskaldunak, euskara ama-hizkuntza zuten haurrei zuzendurikoak izan ziren. 60ko hamarkadan hasiera eman zitzaion ikastolen proiektua haur euskaldun eta erdaldunei begira sortu zen.

Klandestinitate urte batzuen ondoren (1943-1960), hedapen eta legeztatze fasea izan zuen mugimendurik 1960-1976 bitartean, Gipuzkoan eta Bizkaian lortuz garapen handiena. Esan daiteke 1960-1975/78 bitartean eskolatze sare berri baten sorrera gauzatu zela, euskal eskola publikoaren eraikuntzarako

derrigorrezko erreferentzia izango zena. Ondorengo urteak normalizazio juridikoa eta berdinketa publikoa eskuratzeko ahaleginen garaia izan ziren, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionean bederen.³⁴

Frankismoaren lehenengo etapetan, euskarazko testuak argitaratzeko arazoak medio, haurren irakaskuntzarako erabiltzen ziren testu eta irakurketa liburuak gerra-aurrekoak izan ziren, bai etxe-eskoletan bai lehenengo urteetako ikastoletan. Testurik erabiliena Isaac López-Mendizabal jaunak 1923an idatzi zuen *Xabiartxo* liburua izan zen.

Honela aurkezten zitzaion Xabiartxo irakurleari:

“Emen ageri dan mutiltxo hau Xabiartxo da.

”–Egun on, amatxo. Egun on, aita.

”–Egun on, Xabiartxo.

”Jekitzerakoan egun onak eman bear dira. Aita eta ama asko maite ditu Xabiartxo’k. Xabiartxo oso ona da. Bere afeba Iziartxo’k asko maite du. Seme ona gurasoen poza izaten da. Ume onak ez dira beñere alkarren artean asafetzen. Jainkoak ez du nai inori kalte egiterik. Guztiok anayak gera ta guztiok alkar maite izatea nai du Jainkoak”.

Euskal Kultura tradizionalen txertaturiko identitate-ezaugarriekin eman zitzaion hasiera esperientzia berriari. Ondorengo urteetan, aldiz, maila bakoitzari zegokion materiala egokia argitaratuz joan zen, helburu pedagogikoei sortu ziren Gordailu (1968-1969) eta Iker (1972) bezalako argitaletxe batzuen esku edota

³⁴ Normalizatzeko prozesu luzean onartutako araudi eta sinaturiko hitzarmenen artean aipatuko genituzke, besteak beste, Ikastolen Titularitate Publikorako Araudia (1980), Ikastolen Konfederazioaren sorrera (1988), eta Eskola Publikoaren Legea (1993).



15. Lopez-Mendizabal'dar Ixaka. Xabiartxo. Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idatzia. Txikiren edergarriak. Euskalerrriaren Aldea 1923'g. urtean saritua. Bigarren argitaldia. 1932 – Tolosa'n: Lopez Mendizabal'nean. Hona liburuaren azala eta barruko orri aukeratuak.

argitaletxe arrunten esku. Gauza da, normalizazio prozesuan sarturik jada, irakaskuntza behar berrien arabera material didaktiko berria egokitzen eta argitaratzen joan zela, irakaskuntza-maila bakoitzerako materiala bereiziz, baita irakasgai ezberdinei egokituriko testu modernoak argitaratuz. Ildo honetatik, 1970 eta, batez ere, 1975. urtetik aurrerakoa “boom” baten hasiera izan ziren, ordura arte ezagutu gabekoa. Halaber, euskararen erabilera normaltzeko 10/1982 legea onartu zenetik nabarmenago areagotu zen eskola liburu eta materialen argitalpena, merkatua ziurtatuz.

Aipatu euskararen normalkuntza legea azpimarratu behar dugu, izan ere bera abiapuntutzat harturik hizkuntza politika berri bati hasiera eman baitzitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan. Honela, hezkuntza alorreko hizkuntza normalkuntzaren oinarritzko irizpideen artean zera aitortzen zaie ikasleei 15. atalean: *“Ikasle guztiei, hezkuntza-maila berezitan, irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie”*. Legeak ezarri zuen marko berriaren testuinguruan eskola sistema osoan (ikastoletan, eskola publikoetan eta eskola pribatuetan) hizkuntza mailaren araberrako hezkuntza eredia ezarri zen. Hizkuntza-ereduak ezartzen zituen 138/1983 dekretua onartu zelarik, unibertsitate mailatik kanpo zegoen irakaskuntza maila guztietan hiru eredu nagusi bereizi ziren: A eredia, B eredia eta D eredia. Ez istilurik gabe eta bere planteamendu eta egokitasuna behin eta berriz berraztertua izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza ez-unibertsitario osoa eredu horien arabera antolatuta geratu zen ondorengo urteetarako. Nafarroaren kasuan, 1986ko abenduaren 15ean ezarri zen “Vascuence”aren legeak ekarri zuen hizkuntza eta hezkuntza politikarako marko berria. Lege horrek Nafarroako udalerrriak hiru eskualdetan banatu

zituen eskualde euskaldun, eskualde misto eta eskualde ez-euskaldunean. Eremuen arabera eginiko bereizketari egokitu beharko zitzaizkion, ondoren, A, B eta D hizkuntza ereduak, 159/1988 Foru-Dekretuak arautu zituenak.

Egokitasunak egokitasun, hezkuntza ereduaren planteamendu hauek egin izanak agerian jartzen duena zera da: haur euskaldunen alfabetatze maila egokia eta haur erdaldunen euskalduntzearen garapen nahikoa ahalbideratzearen inguruan euskal gizartean egon den kezka, eta hauek bermatzeko izan duen borondatea.

Ikastolen sortze eta garapenak hezkuntza sistema orokorrean euskarazko irakaskuntza sartzea ekarri zuen. Baita, ondorioz, oinarritzko irakaskuntza mailetatik haratago, bigarren mailako irakaskuntzan eta unibertsitate mailako titulazioetan euskara presente egotea. Maila horietarako testu espezializatuak apurka-apurka gauzatuz joango direlarik, ikerketa eta hiztegi teknikoak egiten ziharduten erakundeak (UZEI, ELHUYAR etab), eta bereziki euskaraz argitaratzen saiatzen ziren argitaletxeak sortu ziren.

Hala ere, ordea, irakaskuntza eta eskola mailan jorratutako bideak ez dira nahiko izan, ez lehen ez orain, haurrak zein helduak irakurketan eta idazketan euskaraz gaitzeko. XIX. mendean, baita XX. goaren hasieran egin zenaren antzera, frankismo garaiko lehenengo urteetan ere hainbat ekintza burutu ziren euskal esparru osoan, eskolatik kanpo, modu informalean eskola gaztelaniaz jasotzen zuten umeei euskaraz irakurtzen eta idazten irakasteko asmoarekin. Merezi du horietako esperientzia batzuk kontutan hartzea. Adibidez, *Umeen Deia* (1957-1964).³⁵

35 TORRES, I.: *Umeen Deia*. Bilbao: Editorial Claret, 1971.

aldizkaria eta bere inguruan antolatutako ekintzak. Aita Felipe Murietak horrela erabakita, umeentzat eta umeek egindako aldizkaria sortu zen *Umeen Deia* izenburuarekin Nafarroako Príncipe de Viana erakundearen barruan. Argia ikusi zuten 65 zenbakietan euskaraz idatzitako 1500 lankidetzaz zituen, horietako 885 hamalau urtetik beherako umeek idatzia. Lanak Nafarroa eta Gipuzkoatik heltzen baziren ere, egon bazeuden Araba, Bizkaia, Behe Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoatik, baita Argentina, Canada, Chile eta Venezuelatik bidalitako lanak ere.

Umeek ziotenari erreparatuz gero, ikus dezakegu hauek euskaraz irakurtzen eta idazten ikasten zutela eskolatik kanpo, eta gaztelaraz jasotzen zuten alfabetatzearekin batera. Horretarako bide bereziak ei zeuden. Bat dotrinaren bidetik ematen zena: herrietako parrokoen bitartez animatzen zituzten haurrak euskaraz idatz zezaten. Umeek bertan ikasten zuten euskaraz irakurtzen eta idazten, baita euskaraz ipuinak kontatzen. Beste aukera bat 60ko hamarkadako lehenengo urteetan zenbait herritan eskola bukatu ondoren euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko ematen ziren eskola orduena zen. Erabili zen beste akuilu bat eskoletan (publiko zein pribatueta) lanean ari ziren maisu-maistren bitartekoa zen. Hauek, aurreko mendean erabilitako estrategiei helduz, euskaraz irakasten zieten lehenengo gero gaztelera ikasteko. Bi aldiz ikasten zuten irakurtzen eta idazten, bi hizkuntzetan.

Umeen Deia umeen arteko harremana dinamizatu zuen aldizkaria izan zen. Bere inguruan, batez ere Gipuzkoan eta Nafarroan, azterketak egiten ziren, baita sariak banatu ere. Umeentzako euskarazko irakurketa eta idazketa frogalehiaketak antolatzen ziren, eta irabazleek saritzat opariak jaso edo txango antolatuak egiten zituzten.

Bere jarraipentzat har daitekeen beste aldizkari baten sorrera ere aipatu beharko litzateke, *Kili-Kili*³⁶ alegia.




16. 70 hamarkadan umeentzat Bizkaian sortu eta beste gainontzeko herrialdeetan zabaldu zen aldizkaria eta alfabetatze-txapelketa dugu Kili-Kili. Eskola gaztelaraz izaten zuten haurrentzat, zein euskaraz hartzen zutenentzat formazio osagarria eskaintzen zuen ekintza zen. Bere lan-koadernoetan ezartzen ziren aktibitateen bitartez irakurketa eta idazketa garatzeaz gain euskal kultura lantzeko aukera eskaintzen zitzaion haurrari. Hori guztia lehiaketaren inguruan herriz herri ospatzen ziren festa eta jaien testuinguruan.

- 36 ANASAGASTI, P. "Kili-kili un personaje, un símbolo: una cátedra de vascuence a domicilio". *Revista Aranzazu*, 1971, II.bol. OLAZABAL, K. "Kili-kili. J.A. Retolaza mintzo." *Zeruko Argia*, 1974, 592-93 zb.

Ikastolen mugimenduaren hedapen garaiarekin batera sortu zen. Bere helburua, aurrekoa legez, haur euskaldunen artean irakurketa eta idazketa euskaraz bultzatzea zen, bai gazteleraz eskolatuak zeudenen artean, baita ikastoletan ikasten zebiltzanen artean ere. Joxe Antonio Retolazaren bultzadaz Bizkaian sortu zen. Haur-aldizkari bezala sortu zena, gerora ere lehiaketa bihurtu zen: “Kili-Kili Sariketa Nagusia”, *Kili-Kili Lan ta Lan* koadernoak eginez.

Sistema honelakoa zen: hamabi lan-koaderno ziren, umeen etxeetara bidaltzen zirenak, bete ondoren atzera itzultzeko baldintzarekin. Ikasturte bakoitzean hiru koaderno egiten ziren, honako ariketa hauek lantzen zirelarik: irakurketa eta idazketa, euskal kulturaren inguruko gaiak, hala nola, geografia, historia, matematika, erlijioa, kantak, marrazkiak, etab. Bere inguruan festak ere antolatzen ziren, herri askotako umeak elkartu zitezen, festa eta jolas giroan euskararekiko zaletasuna zabaltzeko. Ikasturte amaieran txangoak eta opari banaketak izaten ziren. Proiektuak Nafarroan “Príncipe de Viana” erakundearen, Gipuzkoan “Euskara-lagunak”-en, Bizkaian “Euskarazaleak”-en, Araban Foru Diputazioaren eta Iparraldean Seaskaren laguntza jaso zuen, 19.000 ikaslerengana iritsiz 1973an.

Hein berean, ezin ditugu testuinguru honetan aipatu gabe utzi XX. mendearen bigarren erdialdean helduen heziketan burutu ziren ekintzak eta bideratu ziren proiektuak. Izan ere, euskararen berreskurapenaren eta euskal kulturaren modernizazioaren alde egin zen apustuan ezinbestekoa ikusi zen haurtzaroan beren eskola garaian euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko aukerarik izan ez zuten helduengan eragitea, eta haiei ere euskara



17. Hizkuntza eta kultur berreskurapen mugimendua 60ko hamarkadan abian jarri zenetik, euskara irakasteko metodoak ugaritu egin ziren. Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea euskararen erabileraren normalkuntzara bideraturiko hizkuntza-politikaren oinarritzko elementuetako bat izan zen.

ikasteko edota euskaraz alfabetatzeko bideak irekitzea. Honela, Ikastolen mugimenduarekin batera, eta antzeko bilakaera pausoeekin, 60ko hamarkadaz geroztik helduen heziketaren kontzepzio berri bat sortu zen: Helduen Alfabetatze eta Euskalduntze mugimendua.

Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) lehenik, eta baita ondoren Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundeak (HABE) ere diseinatu eta programatu zituzten helduei zuzendutako formazio ikastaroak, gaueskolak, euskaltegiak eta barnetegiak antolatuz beti ere helduen populazioaren beharrei egokiturik. Era berean, beren esku egon zen denbora luzez helduentzako egokia izango zen euskalduntze eta alfabetatze materialaren³⁷ sorkuntza.

TESTU-MOTA UGARI ETA AZKAR IRAKURRIAK

XX. mendearen azken hogeita hamar urteetan zehar euskararen normalkuntza lortzea izan zen euskal gizartearen helbururik nagusienetariko bat, hots, euskararen erabileraren berreskurapen osoa lortzea: pertsonala, soziala, kulturala eta lurraldetasunezkoa. Ildo horretatik, euskarak bizi zuen ordezkapen-prozesua gainditu nahian, euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzera zuzendu ziren herri-erakunde eta erakunde ofizialen ahaleginak Euskal Herriko herrialdeetan. Bai herri-ekimenen bai erakunde politiko-administraziozkoen helburuetako bat, haur zein helduen euskalduntze eta alfabetatze prozesuak bultzatzea zen eta, aldi berean, gizartean euskara erabiltzeko aukerak

eskaintzea eta euskara erabilaraztea, bai ahozko zein idatzizko adierazpenean.

Erabileraren sustapenari dagokionez, eta aurreko urteekin konparatuz gero, garrantzi handikoak izan ziren aipatu urteak hainbat arrazoiengatik: Batetik, euskararen produkzio idatzia eta bibliografiazkoa kuantitatiboki eta kualitatiboki asko areagotu zen, nabarmena izan zelarik, argitaletxe berrien sorkuntza. Era berean, azpimarragarria da aldizkari berrien sorrera edota iraganekoen birmoldaketa eta, finean, euskararekiko gizarteak hartzen duen jarreraren bilakaera.

Euskal liburugintzaren egoeraren ezaugarri nagusiak honela laburbilduko genituzke, J.M. Torrealдай jaunak eginiko azterketa abiapuntutzat hartuta:³⁸ argitaratutako liburuen kopurua nabarmen ugaltu zen, euskaraz jorraturiko gaiak eta esparruak zabaltu ziren, literatura eta irakaskuntza-motako liburuenganako joera gero eta nabarmenagoa egin zen, eta euskara batuaren errotze-prozesua gauzatu zen. Urtero argitaratzen ziren

37 Euskalduntze eta alfabetatze mugimenduaren hasierako urteetan euskara ikasteko metodoek bilakaera bizia izan zuten bai materialki bai metodologikoki. Hor ditugu, adibidez: F. Mendizabalen *Euskalduntzat gramatika euskeraz* (1969), Fermin Iralagoitiaren *Euskeraz Egin* (1973), Iñaki Goikoetxearen *Nora zoaz? Método intuitivo y ameno para aprender euskera*. *Euskera ikasteko bide ona eta polita* (1976), J.L. Goikoetxea eta X. Zubizarretaren *Alfabetatzen* (1975), Euskaltzaindiaren *Hitz egin!* eta abar.

38 Garai hauetako liburugintzaren nondik norakoak ikusteko oinarritzko iturria da: TORREALDAI, J.M. *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1993.

liburuen kopuruaren igoera nabarmenduz joan zen hamarkadetan aurrera egin ahala. Adibidez, 1975 arte ez zen urtean 100 liburu argitaratzera iristen. Kopuru hori gaindituta geratuko zen gerora. Euskaraz lantzen ziren gaien alorrean, bestalde, ikusten da zabaltze-joera



18. Gerra aurreko saiakerei helduz, berriro ere, 1960an argitaratzen hasi zen Pan-Pin. Haurrentzako lehenengo euskarazko TBOa.

nabaria, gero eta gai gehiago lantzen baitziren euskaraz, nahiz eta liburu kopuru gutxi argitaratu sail askotan.

Baina, aldi berean ere agerikoa da produkzioa gai batzuen inguruan bilduz joan zela, haur eta gazte-literatura sailak eta irakaskuntza-sailak gero eta ekoizpen-proportzio handiagoa bereganatu baitzuten.³⁹ Gero eta nabarmenagoa egin zen halaber itzulpengintzarako joera. Aipatu joera hauek, jakina, liburuaren merkatuaren eta zehazki argitalpengintzaren testuinguruan ulertu behar ditugu, azken batean argitaletxeak⁴⁰ baitira liburuaren bat argitaratzeko garaian azken hitza dutenak eta, ondorioz, merkatuan eskaintza kontrolatuko dutenak.

Euskarazko liburuak erosi eta irakurriko zituen merkatuak egon bazegoen, irakaskuntzako goi-mailetan eta alfabetatze-euskalduntzekoetan kontzentratua hein handi batean. Bistan da eskaria bazela eta zentzu horretan euskarazko irakurketak gizartean lekua hartu zuela, eta euskal irakurlegoa heziz eta haziz joan zela urteetan. Idazketaren kasuan, ezin dugu esan hein bereko garapena izan zuenik. Kasu honetan, euskal idazleak tradizioz izan duen, eta behar izan duen, borondate on, ofizio eta euskararekiko militantzia

39 Euskalduntze-Alfabetatzeak sorturiko beharrei erantzun nahi zitzaizkeen bezala, aurrerantzean ere honekin batera ikastoletatik sorturiko gero eta ikasle gehiagoren eskaerak hartu zuen bereziki argitaletxeen arreta.

40 Argitaletxeen munduan hiru fenomeno aipatuko genituzke garaiko ezaugarri gisa: aurretik sorturiko argitaletxeak sendotu eta argitaletxe ugari sortu zen, erakunde publikoek finantzaturiko liburugintza nabarmena izan zen, eta Euskal Herritik kanpoko argitaletxeak euskal merkatuan sartzen hasi ziren.

funtsezko aldagaia izan zen euskal liburuaren idazketan eta argitalpenean.

Ildo horretatik, aipatzekoak dira administrazio publikoetatik euskal liburugintzari eskaini zitzaizkion laguntzak, idazle zein argitaletxeentzako subentzio eta lehiaketak bideratuz, gerraz geroztik eman ziren lehenetariko saiakerak ziren neurrian, eta euskararekiko eta euskal kulturarekiko nolabaiteko ardura eta bultzada adierazten zuten heinean.

Aldizkarietarako dagokienez ere, liburugintzan azpimarratu dugun ugaltze-fenomenoaren antzekoa gauzatu zen mendearen bigarren erdialdean. Jada 70eko hamarkadan gutxi edo gehiago iraun zuten aldizkari berri dezente sortu zen, eta aurreko urteetan sorturiko zenbait aldizkari sakoneko eraldaketa bizi zuten. Kopuruari begiratuz, aurreko urteetan sortutakoei⁴¹ gehitu zitzaizkien 70ko hamarkadatik aurrera sortu ziren berriak.⁴² Kualitatiboki emandako aldaketak izango zuen eragina euskararen erabilera idatziaren normalizazio-prozesuan. Batetik, informazio-aldizkariaren artean, informazio erlijioso edo lokala utzirik, informazio orokorreko astekari bihurtu ziren, adibidez, 1976. urtean *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Goiz Argi*. Euskal prentsa funtzional baten alde egin zuten apustua. Prentsa funtzional berri horri *Deia* eta *Egin* (1977) egunkariak eta *Punto y Hora*, *Garaia* eta *Berriak* bezalako astekari elebidunen sorrera gehitu behar diogu; Euskal Herriko arazoak eta informazioa lantzeko sortuak, elebidunak (nahiz eta euskararen presentzia urria izan), planteamendu profesionalaz sortuak, euskal gizartearen kontzientzia eragin zuzena izan zuten.

Euskararen erabilera idatziaren eremuan beste aldaketa garrantzitsua aldizkari espezializatuen eskutik etorri

zen. Zientzia arloko *Elhuyar* aldizkariaren sorrerak eta ondorengo bilakaerak eginkizun nagusia jokatu zuen, adibidez, zientzia eta teknika arloko euskararen gaikuntzan. Kultur aldizkariaren artean, berriz, frankismoak eginiko eraso eta debekuen gainetik atereaz, 1977. urtean aukera berriek gorputza hartu zuten, eta beraien artean *Jakin*. Etenaldi askoren ondoren, 1977. urtean argitaletxe izateari utzi eta gai monografikoak landuko zituen aldizkari bihurtuz, indar berriz atera zen eta euskara eta euskal kulturaren bilakaeraren azterketan erreferentzia puntu bihurtu zen. Aipatzekoak dira, halaber, *Zabal* eta *Zehatz* aldizkariak, nahiz eta lehenengoak bezainbeste ez iraun, bere garaian euskal kulturaren munduan itzal handia izan zuten heinean.

Diru-laguntzak lortzeko bideak irekiz joan ahala, bestalde, aldizkari kopurua ugartuz joan zen.⁴³ Baionan, Iruñean, Bilbon edo Donostian sortuak, informazio orokorreko zein espezializatuak; literatura, antzerkia, zientzia eta teknika, soziolinguistika, soziopolitika eta abarreko gai ugari lantzen zituzten aldizkariaren sorrera areagotu zen.

41 *Euskera*, *Bulletin du Musée Basque*, *Munibe*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Zeruko Argia*, *Herria*, *Anaitasuna*, *Príncipe de Viana*, *Goiz Argi*, *Jakin*, *Karmel*, *Egan*, *Olerti*, *Redención*, *Aranzazu*, *Othoizlari*, *Jaunaren Deia*, etab.

42 *Elhuyar* 1974, *Agur* 1970, *Hitz* 1974, *Punto y Hora de Euskal Herria* 1976, *Garaia* 1976, *Berriak* 1976, *Zabal* 1973, *Zehatz* 1977, *Gaiak* 1976, *Ustela* 1975, *Iratzar* 1976 etab.

43 Batzuk aipatzearren: *Susa* (1980), *Xaguxarra* (1980-81), *Idatz&Mintz* (1981), *Maiatz* (1982), *Kandela* (1983-84), *Pamiela* (1983), *Korroko* (1984), *Ttu-Ttua* (1984-85), *Txistu y Tamboliñ* (1984-86), *Bat* (1990), *Larrun* (1985), *Antzerti* (1982), *Hegats* (1989), *Hemen* (1986), *Aburu* (1982) eta abar luze bat.



19. Hedapen orokorreko komunikabideen aurrean tokian tokiko baliabideak txikikeriak badirudite ere, ezin baztertu daitekeen fenomeno dugu herri eta eskualdeetako aldizkariena. Askotan baliabide eskasekin sortuak, eta herritar askoren borondate sutsuari esker, beren balioa irabazia izan dute urteetan zehar. Izan ere, hedapen zabalekoak iritsi ez diren herritarrengana heldu izan dira asko eta irakurketa-ohitura batzuk finkatzen lagundu dute.

Geografia eremu zabalari begira eginiko aldizkariekin batera, kontutan hartu behar dira herri zein eskualdeetan argitara atera zen aldizkari mordoa. Euskal herriko eskualde gehienetan izan zen iraupen motzeko edo luzeko aldizkariren bat, hala nola: Arraste Press, Akatz, Hots, Amilamia, Plazara, Hitza etab.

Aldizkariaren kasuan eman zen oparotasuna ez zen, tamalez, sumatu egunkariaren kasuan. Eguneroko prentsan eginiko saiakera txiki batzuk salbu, erdara nagusi izan zen. *Egin* egunkariak 1986an *Hemen* aldizkaria argitaratu zuen, eta *Deia* egunkariak, bere aldetik, Eguna argitaratu zuen euskal egunkari bat izan zitekeenaren lehen saiakera modura. Euskal egunkari sendo eta zabala 1990. urte arte, *Euskaldunon Egunkaria* argitara eman zen arte⁴⁴ ez zen posible izan.

Euskara hutsez idatziriko egunkaria edukitzea kultura moderno eta normalizatuaren adierazpena da, edo behintzat modernizazio eta normalizatzeko bidean dagoen kulturaren adierazgarria. Euskaraz informazioa helarazi, zabaltu, hartu, utzi, biziberritzen den gizarte moderno bati dagokion egunerokotasunean txertatua dagoela adierazten digu. Kultura moderno bateko hizkuntza normalizatu orok irakurketaren eta idazketaren gizarte-bilakaerarako duen oinarritzko tresnetariko bat da, 90ko hamarkadak eman zuena. Etorkizunak neurtu beharko du emaniko aurrerapauso horren eraginaren zenbatekoa.

44 15.000 aletik gora izan ziren banatuak bere lehenengo urtean, *Egunkariaren* lehen urtebetetze-egunean aldiz 40.000 ale. 2003an Espainiako Gobernuak bere itxiera ezarri ondoren *Berria* egunkaria sortu zen.



Erasoa EEBBei

Munduko potentzia nagusiaren bihotz ekonomiko eta militarra kolpatu dute / 16 - 27

20. Euskaldunon Egunkaria, Lasarte-Oria, 1990ko abenduaren 6an jaio zen. Mendearen hasieran euskarazko egunkaria mantentzeko saiakera batzuk egin ziren arren, egunkariaren argitalpena fenomeno berria suertatu zen. Euskararen erabilera idatzia bere osotasunean menperatzen zuen populazioaren eskaera adierazten zuelarik, euskarazko irakurketa esparruen zabaltzea ekarri zuen. Irudian 2001eko irailaren 12ko azala. 2003an Espainiako Gobernuak itxi zuen.

Euskararen modernizazio prozesurako ezinbestekoa izan da hizkuntzaren estandarizazioa, euskalkien mugak gainditu eta idatzizko komunikazioa erraztuko zuen hizkuntza bateratua aho batez adostu eta onartzea alegia. Irakaskuntza euskalduntzeko eta herritar guztiengana zabaltzeko, testugintzarako, liburu eta aldizkariaren irakurle merkatu iraunkor eta sendoa eduki ahal izateko derrigorrezko tresna bihurtu zen euskara batua. Urteetako errebindikazioa izan zelarik, euskara estandarraren beharra berpiztu zen, gerra-osteko isilunearen ondoren, 60ko hamarkadaren inguruan. Oraingoan, aurreko saiakeretan ez bezala, batasunaren ideiak indarra hartu zuen eta, nola hala, euskaltzaleen komunitateak onartu zuen nork arduratu behar zuen hizkuntzaren estandarizazioaz, euskara batuaz alegia: Euskaltzaindiak.

Ildo horretatik, euskararen batasunerako bidea markatuko duten gunerik garrantzitsuenetarikoa Euskaltzaindiaren 1968ko Arantzazuko Biltzarra eta 1978ko Bergarako Biltzarra izan ziren, batean zein bestean hartutako erabakiak eta oinarriak erabatekoak izan baitziren, irizpide nagusien finkapen gisa. Tarteko eta ondorengo urteetan oinarritzko xehetasunak eta atal zehatzak landu ziren, ahal zenetan, zenbait erabaki hartu eta herritarrei igorritz.

Hizkuntza eta kulturaren modernizazio prozesurik ezinezkoa litzateke, idatzizko euskarrian baina ahozko komunikazioan diharduten hedabideen garapenik gabe, hots, euskara hutsezko irratirik eta telebistarik gabe. Modu berean, erabakigarria izan zen hizkuntza zientzia eta teknika alorretan gaitzeko hainbat erakundek egin zuten lana. UZEI, ELHUYAR eta UEU izan ziren euskara tekniko, eta ezagutza-arloetako terminologia

prestatu zutenak eta, modu horretan euskaldunak
zeregin horretarako gaitzen lehenak, baina ez bakarrik.
Horiekin batera, eta horien ondoren, diharduten
euskaltzaleen erronka izan da eta izango da teknologia
berrietatik eta giza-adierazpen modu berrietatik eratorri
zaizkigun egokitze beharrei erantzuteko hizkuntza eta
hiztunak prestatzea, euskara eta euskaldunak gaitzea.



BIBLIOGRAFIA

- ANASAGASTI, P. “Kili-kili un personaje, un símbolo: una cátedra de vascuence a domicilio”. *Revista Aranzazu*, 1971, II.bol.
- ARRIEN, G. *Educación y Escuelas de Barriada en Vizcaya*. Bilbao: Diputación Foral de Vizcaya, 1987.
- ASTIGARRAGA UGARTE, L.: *Diccionario manual vascongado y castellano y elementos de gramática para el uso de la juventud de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la Doctrina Cristiana en ambos idiomas*. Donostia: Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, 1825. . Koldo Mitxelena. Fondo Gordeak: J.U. 4265.
- BASURKO MOTRIKO, F. “La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca” in DÁVILA, P. (koord.), *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. Bilbo: EHU, 1995, 193-221 orr.
- CHARTIER, R. *Libros, lecturas y lectores en la Edad Media*. Madrid: Alianza, 1993.
- DÁVILA, P. “Los libros escolares en euskera” in ESCOLANO, A. (zuz.) *Historia ilustrada del libro escolar en España. Del Antiguo Régimen a la Segunda República*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 1997, 599-620.
- DÁVILA, P., EIZAGIRRE, A. “Alfabetatzea Euskal herrian: Ikuspegi historikoa”. *Ele*, 1991, 8, 27-55 orr.
- . “Alfabetización y euskaldunización en Euskal Herria” in ESCOLANO, A. *Leer y escribir en España*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 1992.
- . “Las fiestas populares y un nuevo contexto de alfabetización en euskera. El caso de Guipúzcoa (1879-1918)”. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1996, 41-1, 125-140.
- DÁVILA, P., EIZAGIRRE, A., FERNANDEZ, I. “Leer y escribir en las escuelas de Euskal Herria, 1860-1990” in DÁVILA, P. (koord.), *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. Bilbo: EHU, 1995, 45 –78 orr.
- DÁVILA, P., ERRIONDO, L. “Los libros de texto en euskera” in ESCOLANO, A.(zuz.), *Historia ilustrada del libro escolar en España. De la posguerra a la reforma educativa*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 1998, 519-545 orr.
- DÍAZ NOCI, J. *Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937)*. *Euskal Kazetaritzaren sorrera eta garapena*. Leioa: EHU, 1992.
- . *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995.
- EIZAGIRRE, A. “Euskal alfabetatzea: euskararen erabilerak (1970-1990)”. *Uztaro*, 1993, 9, 27-58.
- . “Usos de la lectura y la escritura en euskera (1970-1990)” in DÁVILA, P. (koord.), *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. Bilbo: EHU, 1995, 128 –158 orr.
- . “Euskarazko alfabetatzea XIX. mendean: inprentaren baldintzapena eta eragintza”. *Hik hasi*, 2002, 71, 38-42.
- . “Hezkuntza esparru ez formalak, euskarazko alfabetatzearen garapenerako eremu historikoak”. *Euskonews&Media*.
- . *Alfabetatze espazioak eta herri-heziketa Gipuzkoan (1876-1918)*. Donostia, 2005. Doktoradutza tesia.
- ERIZE, X. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936. Soziolinguistika Historikoa eta Hizkuntza Gutxituen Bizitza*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1997.

- EUSKALTZAINDIA. *El libro blanco del euskera*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1977.
- Euskarari buruzko araubidea. Normativa sobre el euskera*. Vitoria-Gasteiz: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea-Instituto Vasco de Administración Pública, 1986 etab.
- FERNÁNDEZ, I. “Gerraondoaren historia luzea: euskal eskolagintza”. *Uztaro*, 1993, 9, 59-88.
- . Oroimenaren hitza. Leioa: EHU, 1994.
- FURET, F., OZOUF, J. *Lire et écrire*. Paris: Ed. de Minuit, 1977
- GARMENDIA, J. *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los ayuntamientos (1900-1950)*. Leioa: EHU, 2004.
- LEKUONA, J.M. “Ahozko literaturaren historiaz” in INCHAUSTI, J.(zuz.) *Euskal Herria*. Donostia: Lankide Aurrezkia/Jakin, 1985, 459-468 orr.
- OLAZABAL, K. “Kili-kili. J.A. Retolaza mintzo.” *Zeruko Argia*, 1974, 592-93 zb.
- TORREALDAI, J.M. *XX. mendeko euskal liburuaren katalogoa (1900-1992)*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1993.
- TORREALDAI, J.M., AZURMENDI, J. “La literatura vasca a través de los siglos” in INCHAUSTI, J. (zuz.) *Euskal Herria*. Oiartzun, Lankide Aurrezkia/Jakin, 1985, 478-489 orr.
- TORRES, I.: *Umeen Deia*. Bilbao: Editorial Claret, 1971.
- ZABALETA, I. *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*. Leioa:EHU, 1998.
- ZABALETA, I., Dávila, P. “Euskal eskolaren lehen urratsak”. TANTAK. 1990, 4.zb., 21-31orr.
- ZALAKAIN, G. (1875): *Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat. G.Z. moldatuak*. Tolosa: Pedro Gurruchaga, 1875. Koldo Mitxelena. Fondo Gordeak: J.U. 5481.
- ZAVALA, A. *Bosquejo de historia del bersolarismo*. Donostia, Auñamendi, 1964.

ILUSTRAZIOEN ITURRIAK

1. EGUREN, JUAN MARIA. *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Gasteiz, 1867. Lehen orrialdea eta barruko bat. Koldo Mitxelena. Fondo Gordeak: J.U.4178b. Argazkia egilearena.
2. *Nekazaritzako Irakurialdiak: mendi-aldeko ikastolentzat*. Donostia: Diputazioko Irarkolan, 1933. Azala. HPSren argazkia.
3. *Cristauaren dotriña Aita Astetec arguitara emana*. Gasteiz, 1867. Lehen orrialdea. HPSren argazkia.
4. ITURRIOTZ, PIRMIN. *Lutelesti. Iru-Mailetan. Igo maila*. Gasteiz, 1932. Azala. HPSren argazkia.
5. LOPEZ MENDIZABAL, IXAKA. *Umearen laguna. Irakurtzen ikasteko biderik errezena*. Azala. BIDE GILEAK bilduma.
6. *Verso Berriac.—Sempelarrec jarriak*. HPSren argazkia.
7. *Euzkel-Egutegiya horma-egutegi formatuan*. Koldo Mitxelena. Fondo Gordeak: J.U. 554. Argazkia egilearena.
8. *Euzkel-Egutegiya liburuxka formatuan*. Koldo Mitxelena. Fondo Gordeak: J.U. 554. Argazkia egilearena.
9. Arturo Campion jasotako omenaldi batean, umeek inguratuta. Lasarte, 1926. BIDE GILEAK bilduma.
10. Santo Tomas Feria: Kutxa Fototeka.
11. *Euskarazko itz-jostaldiak. Oroimengarria*. Donostia, 1881. HPSren argazkia.
12. *Txistu gehigarria, Argia* aldizkariak argitaratua. 1927. Lehen orrialdea. BIDE GILEAK bilduma.
13. *Baserritarra. Probintziako ganaduen terramako albistaria*. Imprenta y Litografía de V. Iraola. Donostia. El Pueblo Vasco. Koldo Mitxelena. Argazkia egilearena.
14. Elbira Zipitria maistraren gela bati egindako eraso. BIDE GILEAK bilduma.
15. LOPEZ MENDIZABAL, IXAKA. *Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia*. Tolosa, 1932. Azala eta barruko orrialde bi. HPSren argazkia.
16. *Kili-Kili* aldizkariaren azala, jai baterako deia egiteko afixa, eta orri jakina. BIDE GILEAK bilduma.
17. Euskalduntze-alfabetatzerako hainbat metodoren azalak. HPSren argazkia.
18. *Pan-Pin* gehigarria, *Argia* aldizkariak argitaratua. 57 zk. Lehen orrialdea. BIDE GILEAK bilduma.
19. *Txintxarri* herri aldizkaria. 1. zenbakia. 1993ko urria. Argazkia egilearena.
20. *Euskaldunon Egunkaria*, 2001eko irailaren 12ko azala.



